KIROLA: ISTILUAK MONDRAREN ETA ALOÑAREN PARTIDUETAN /10

Goienkaria

EGUAZTENA • 2005eko abenduaren 7a • VI. urtea • 224. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

ARRASATE

Kiroldegi berriaren maketa Musakolan ipini dute ikusteko /6

LOREA DIAZ DE GEREÑU / ETXERAT

"ETAri eskatzen diote tregua, baina senideoi noiz emango diguten galdetzen dugu guk" **/9**

DEBAGOIENA

Etxe babestuen eta hutsen gaineko ekintzak /7

Goienka2a

DURANGOKO AZOKA AURTEN, IBARREKO 30 LAN INGURU

UBANE MADERA

San Nikolaseko boloa Uarkapen egin dute

Eguraldia oso txarra zelako, herriko plazan beharrean Uarkape pilotalekuan egin zuten arrasatearrek San Nikolaseko boloa atzo, martitzena, hilak 6. Bi bolo egin zituzten, bat 12:00etan eta bestea 12:30ean. Denetara, aurten 675 euro gastatu ditu Udalak; 12-13 kaxa bete opari banatu zituzten: denetariko gozoki eta litxarreriak, pipak, globoak eta intxaurrak. Gaztainak ere bai; bolo kantuan aipatzen dituzte, eta ohiturari jarraitzeko bota ditu Udalak. Aralar, EAJ eta EAko zinegotziek, tartean Arrasateko alkateak, bota zituzten opariak. Argazkian ikusten den moduan, ume eta guraso asko eta giro bikaina egon ziren Arrasateko ospakizun horretan.

ASTEKO GAIA: SENDAGAIAK ERABILTZEKO MODUA

Informazioa ezinbestekoa da botikan

Negua gero eta gertuago dugun honetan, eguraldiak eta giro hotzak gaixotasunak eragin ohi ditu maizago: katarroa, gripea, eztula... Orduan sendagileari egin ohi diogu bisita eta honen errezetarekin farmaziara joan ohi gara. Gipuzkoan iaz 10.407.302 errezeta fakturatu ziren farmazietan; biztanle bakoitzak batez beste 214,08 euro gastatu zituen botikak erosten.

Baina zenbakiek baino bestelako kontuek zalantza gehiago sortu ohi dizkigute: autodiagnosiak sor ditzakeen kalteek, errezeten beharrak, sendagai generikoak, guardiako farmaziak... Horien gaineko argibideak jaso ditugu. **/2-3**

Lurraldebus sortu dute, autobus zerbitzua hobetzeko lehen urratsa

Lurraldebus elkartea sortu dute Foru Aldundiak eta Gipuzkoako herri-arteko autobus enpresek, tartean Debagoienean lan egiten duen Pesa garraio enpresak, eta horren ikurra daraman autobusa badabil dagoeneko ibarreko errepideetan.

Elkarte horren helburua da autobus zerbitzua hobetzea, maiztasun eta prezio aldetik, besteak beste. **/4**

DEBAGOIENA

Naziotasun Eguna deitu dute ibarrean zapaturako

EHNA tramitatuko dute hilaren 10ean ibarreko herri gehienetan, eta 17an eta 18an beste bitan. Horrez gain, naziotasun eskubideak urratzen direla salatzeko testua izenpetzeko aukera ere izango da. Hori antolatu du Udalbiltzak Naziotasun Egunerako, hilaren 10erako, eta Bai Euskal Herriari taldeak bideratuko du. **/5**

OMU ZERAMIKAK DEBAGOIENA
Bainu altzari eta osagaiak • Hidromasaje kabinak
Manparak • Eraikuntzako materiala
BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6-7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko abenduaren 7a

Lehen eginbeharra, botikan galdetzea

Botikara sendagai bila joatean ez dugu jakiten zein diren gure obligazio eta aukerak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Negua gertu izan ahala hasten dira telebistan Gabonetako iragarkiak, eta baita hotzeriaren aurkako sendagaienak ere. Botikak iragartzen dituztenean ohar hau jakinarazi ohi digute beti: *Irakurri nola erabili sendagai hau eta galdetu botikan*. Hala, sendagaiez eta farmazien funtzionamenduaz zertxobait gehiago jakin nahian, hainbat azalpen jaso ditugu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuen arabera, iaz Gipuzkoan 10.407.302 errezeta fakturatu ziren farmazietan; biztanle bakoitzeko, batez beste, 214,08 euro gastatu ziren, hain zuzen ere. Aurten, urrira bitartean, berau barne, fakturatutako errezetak 9.288.319 izan dira; eta biztanleko batez besteko kostua, berriz, 192,45 euro.

Baina zenbakiak zenbaki, zenbat kontsumitzen dugun baino, botikak nola kontsumitzen ditugun da farmazialariak gehiago kezkatzen dituena.

AUTOMEDIKAZIOA

Noiz edo noiz ia gehienok joan izan gara botikara lagun edo senideren batek gomendatutako sendagai baten bila; edo min arinen baten aurrean, sendagileak aurreko batean gaitz berarendako emandako botika erostera jotzen dugu medikuaren kontsultatik pasa gabe. Ondorioz, eraginkor izan den hainbat botikaren eraginkortasun-galera aipatzen dute adituek. Gaixotasun infekzioso gehienak, denborarekin, gaur egungo botiken aurrean indartsu bihurtzen direla diote; eta horrek osasun publikoan arazo larriak eragiten ditu.

Zabala botikako farmazialariak esan digunez, "Espainian, zenbait lekutan, automedikazioak alarma piztu du. Izan ere, antibiotikoak gaizki erabili izan dira eta, horren ondorioz, antibiotikoekiko erresistentzia areagotu egiten da". Germenek defentsak sortzen dituzte antibiotikoen aurrean, eta garatu eta aldatu egiten dira. Mikrobioen erresistentzia naturala bada ere, antibiotikoak neurririk gabe, desegoki eta arinkeriaz erabiltzeak areagotu egiten du erresistentzia hori. Zabalaren esanetan, "Euskal Herrian ez da horrelakorik gertatzen, ez behintzat kopuru handian; izan ere, badira urte batzuk ez ditugula antibiotikoak errezetarik gabe ematen, eta hori jendeak badaki".

Errezeten kontua argi izan arren, maiz joera izaten da nork bere kasa botikak hartzeko; eta horrelako jarrerak saihesteko, hainbat argibide ematen dituzte adituek: antibiotikoak medikuak agindutakoan baino ez dira hartu behar; sendagileari ez zaio presiorik egin behar lehenbailehen sendatzeko antibiotikoen errezetak egin ditzan; ez da presarik izan behar, tratamendua hasi eta sintomak berehala ez baitira desagertzen; antibiotikoa beti dosi egokietan eta medikuak agindutako egunetan hartu behar da; eta soberan geratzen zaizkigun pastillak edo bestelako botikak ez dira hurrengo baterako utzi behar.

GENERIKOAK

Botikak eta, batez ere, antibiotikoak, zentzuz eta behar bezala erabiltzeko aholkatzen dute adituek, eta gainera diote garestienek ez dutela beti zertan eraginkorrenak izan. Markadun botikak baino merkeagoak dira generikoak, eta gaixoak eska diezaioke sendagileari generikoaren errezeta egiteko.

Sendagai generikoak dira fabrikatu era merkaturatzeko administrazioaren baimena dutenak eta lau edo bost urte pasatuta patentea iraungita dutenak. Hala ere, laborategiek frogatu behar dute generikoek jatorrizkoarekiko sendatzeko ahalmen parekoa dutela.

Generikoak sendagaietako gastua murrizteko neurria ere badira, neurri batean. Baina oraindik joera handirik ez dago botika generikoak kontsumitzeko. Gainera, Iñigo Zabalaren esanetan, "orain arte, bai markakoen bai generikoen salneurria oso parekoa izan da; eta orain ere, aldea oso txikia da".

Berez, sendagaien kostua handiagoa bada, farmazialariaren irabaziak ere handiagoak izango dira; baina botikariek esan digute eurek medikuen esanak betetzen dituztela.

GUARDIAKO FARMAZIA

Garai bateko telesaio baten izena baino zerbait gehiago da guardiako farmazia. Ohiko farmazia ordutegitik kanpo larrialdiren bat gertatuz gero, guardiakora jo beharko dugu, generikoak zein markadunak sendagileak egin digun errezetaren araberako sendagaiak erostera.

Farmaziek ordutegi bat dute eta, zabalik dauden bitartean, edozein sendagai eska dezakete bezeroek; baina behin farmazia itxitakoan, larrialdietan baino ez dute jendea artatuko, eta horre-

Botikak birziklatu eta ingurua zaindu

Sendagaiak beharrezko ez dituguneko hondakin bihurtzen dira; eta, birziklatu ezean, ingurumenari kalte egiten diote. Horrela, bada, sendagaien erabilera okerra saihesteko eta ingurumena babesteko Gipuzkoako farmazietan edukiontzi bereziak ipini dituzte erabilitako sendagaiak edo iraungitakoak botatzeko. Izan ere, sekula ez dira bota behar zakarretara, ezta beste hondakinekin nahastu ere. Farmazietatik jaso eta sailkapena eta aukeraketa egiteko, instalazio batera eramaten dituzte. Han, ontziaren materialaren arabera sailkatuko dituzte (kartoia, plastikoa edo beira), ondoren birziklatzeko.

Beraz, urtean gutxienez bi aldiz etxeko botikina aztertu eta etxean inork hartzen ez dituen sendagaiak, iraungita daudenak eta erabilera orririk edo jatorrizko ontzirik ez duten horiek, edukiontzi berezira bota behar dira. Hara bota daitezke hustutako ontziak zein sendagai hondarrak dituztenak. Erradiografiak, termometroak, sendaketa materialak, objektu ebakitzaileak, orratzak, xiringak, betaurrekoak, txiza edo kaka jasotzeko poltsa zein poteak, berriz, ezin izango dira bota.

interioristak
Oihana Plaza
&
Oihana Beristain
• Barne arkitektura eta lokalen proiektuak eta berrikuntzak
• Obra zuzendaritza
• Erakusleiho apainketa
616 84 55 96

Serviimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak
FAGOR etxetresna elektrikoak
• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak
Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

IRATI AGIRREAZALDEGI

Guardiako farmazietan, sendagilearen errezetarekin joan beharko du bezeroak sendagaiak erostera.

tarako, errezeta beharrezkoa da. Iñigo Zabalak azaldu digunez, "herri bakoitzean dagoen farmazia kopuruaren arabera, farmazialariek hantxe egoteko obligazioa izan dezakete edo ez. Hantxe egotera behartuta ez dauden kasuetan, baina, telefonoz bada ere, bezeroei erantzuteko moduan egon behar dute. Hau da, telefonoz deitzen duen unean, errezeta izanez gero, botikariak farmaziara joan eta sendagaia eman beharko dio. Bergaran bost farmazia daude, eta bakoitzak guardia asko egin behar dituenez, ez daukagu obligaziorik guardietan barruan egoteko. Arrasaten, gehiago direnez, egoten dira".

Aretxabaletan eta Oñatin ere badira guardiako farmaziak, baina ibarreko gainontzeko herrietakoek farmazia bakarra dute –Gatzagaren kasuan, bat ere ez– eta guardiarik ez dute egiten; beraz, larrialdietan aldameneko herrietara joan behar izaten dute.

"Jende askorendako farmazialaria da gertuko sanitarioa, eta gugana jotzen du"

Farmazialariek gomendatzen dute sendagileari bisita egitea eurengana joan aurretik, baina bada eurengana zuzenean joaten den jendea. "Farmazialaria beti da gertuen dagoen sanitarioa; izan ere, gehienetan etxe ondoan izaten da farmazia bat, eta sendagilearengana joateko, larrialdian ez bada, txanda eskatu behar da; beraz, gugana etortzeko joera badu jendeak", esan digu Iñigo Zabalak.

IÑIGO ZABALA / FARMAZIALARIA

"Modu egokian erabili behar dira sendagaiak"

Bergarako Zabala botikako farmazialaria da Iñigo Zabala. Eguneroko jardunetik ondo ezagutzen du farmaziako jira, eta hainbat argibide eman dizkigu horren gainean.

Jende asko etortzen da zuenera errezetarik gabe?

Ez. Jendea nahiko kontzientziatuta dago eta badaki ezin direla zenbait sendagai errezetarik gabe jaso. Botika gehienak medikuaren aginduz hartzen dira, diagnosia egin ostean. Esaterako, antibiotikoak ezin dira errezetarik gabe erosi eta inork ez lituzke hartu behar bere kabuz. Sendagaiak ondo erabiltzen erakutsi behar zaio jendeari.

Errezetarik gabe etorriz gero, ematen duzue botika?

Bezeroak errezeta behar duen sendagairen bat behar badu, medikuaren agindua adierazten duen orria ekartzen du. Oso gutxitan izaten dira salbuespenak. Badira botika batzuk medikuaren diagnosi gabe eros daitezkeenak; gripearen aurkako edo eztularendako zenbait sendagai, esaterako.

Sendagai generikoen aldeko kanpaina egin da; jendeak eskatzen ditu generikoak?

Jendeak badaki zer diren generikoak eta, pixkanaka, gero eta gehiago kontsumitzen dira, baina sendagileak errezeta marka zehatz batekin eginez gero, farmazian ez diogu bezeroari generikoa emango, medikuak agindutakoa baizik. Generikoak saltzeko arrazoietako bat prezioak merkatzea da, baina, oraingoz, generikoen eta markakoen arteko aldea txikia da.

"Sendagilearen errezetarik gabe ez dugu antibiotikorik ematen"

Zein dira jendeak gehien eskatzen dituen botikak?

Garaiaren arabera aldatzen da. Negu partean katarro eta hotzeriaren aurkako sendagaiak, batez ere; eta gainontzean, analgesiko arinak.

Sendagairik saldueenak

Euskal Autonomia Erkidegoan errezeta bidez saldu eta publikoarendako salmenta prezioetan oinarrituta ateratako datuak dira. 2004an salmenta gehien izan zituzten sendagai taldeak dira, eta badirudi, aurtengo datuei begiratuta, bertsuak izango direla urte amaieran.

SENDAGAI TALDEA	SALMENTA 2004
Arnas bideak zabaltzeko botikak	11.122.916 €
Kolesterolaren aurkako botikak	10.895.631 €
Depresioaren aurkako sendagaiak	8.765.805 €
Odolaren presioa jaisten duten botikak	7.842.471 €
Nahaste psikotikoendako sendagaiak	7.098.085 €

BergaraCars
Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D . . . . . BERRIA
BMW 320 I . . . . . BERRIA
BMW 320 D 2005
BMW X3 D . . . . . BERRIA
BMW 320 D . . . . . BERRIA
BMW M3 2003
VW TOUAREG . . . . . HAINBAT

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

VW PASSAT TDI 2003
MB ML 320. . . . . HAINBAT
BMW 320 D TOURING. . . . 2003
BMW 330 D TOURING. . . . 2002
AUDI A4 TDI AVANT . . . BERRIA
AUDI A6 3.0 TDI . . . . . BERRIA
AUDI TT 1.8T. 2002

IKER BARANDIARAN

Lurraldebus ezagutarazteko, logotipo hori daraman autobusa dabil egunotan Debagoienean.

Autobus zerbitzua hobetzeko lanean hasi dira Foru Aldundia eta Pesa

Lurraldebus elkartea sortu dute, eta merkatu ikerketak egiten ari dira

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko garraio publiko zerbitzua hobetzeko oinarriak ipini berri dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pesa garraio enpresak, Lurraldebus elkartea osatu dute-eta. Helburua da autobus zerbitzua hobetzea eta merkatzea.

Lurraldebus elkartea osatu berri dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren mende lurraldean herriarteko zerbitzu erregularra eskaintzen duten 11 autobus operatzaileek, tartean Debagoienean zerbitzu horren kontzesioa duen Pesa enpresak. Plan anbizioduna da, eta helburua da eskualde guztietan garraio publikoari bultzada ematea.

Pesako Logistika zuzendariak, Alejandro Nayak, esaten du Lurraldebus "Debagoienarendako oso-oso garrantzitsua" izango dela, baina ohartarazten du denbora pasako dela emaitzak ikusi orduko. Hala ere, erabiltzaileak Lurraldebus ezagutzen joateko kanpainari ekin dio dagoeneko Diputazioak, eta Debagoieneko bi herri-arteko ibilbidetan ikus daiteke Lurraldebusen logoa daraman autobusa. Oraingoz, horixe da debagoiendarrek atzemango duten berritasun bakarra. Nayak esaten duenez, "epe ertain edo luzean" hasiko dira aldaketak gertatzen.

Hasierako beste ekintza da merkatu ikerketa egitea. Hori egiten ari da Foru Aldundia. Maiztasuna, prezioa… finkatzen lagunduko dio horrek.

Arduradunek ohartarazten dute emaitzak epe ertain edo luzean ikusiko direla

MAIZTASUNA ETA TXARTEL BAKARRA

Zerbitzu berria guztiz ezartzen denean, aldaketa nagusiak hauek izango dira: batetik, zerbitzuak maiztasun handiagoa izango du, eta Alejandro Nayak esaten du "Mundumira jaialdian eman zen zerbitzuaren antzekoa" izango dela; bestetik, txartel bateratua izango dute Gipuzkoako autobus erabiltzaile guztiek, eta beronen prezioa ere oraingo txartelena baino merkeagoa izan dadin nahi dute arduradunek.

Txartel bateratuak ekarriko duena azaltzen du Alejandro Nayak: "Nahi da erabiltzaile bat, adibidez, Arrasaten igotzea autobus batera, Donostian jaistea, eta han geltokitik Anoetara autobusa txartel berarekin hartu ahal izatea; edo topoan igo ahal izatea…". Beste abantaila bat izango da ez dela bidaia bakoitzerako txartela propio erostera joan behar izango. Txartel bateratu horiek zelakoak izango diren ere ez dute erabaki, baina, Nayak dioenez, teknologia berrien bidez ibiliko dira.

Zerbitzua hobetuko duen beste zerbait da, Nayaren esanetan, "autobideak eta baliabide berri guztiak" erabiliko dituztela.

ARRASATEKO HERRI AUTOBUSA, EZ

Oraingoz, Arrasateko herri autobusa ez da planean sartzen, udalaren mende dagoelako. Lehen fase honetan, behintzat, zuzenean Aldundiaren kontzesioa duten enpresek parte hartzen dute.

DEBAGOIENEAN LABUR

Santamasetan hegazti bizien azoka eta erakustaldiak egitea debekatu egin dute

Santamasetan ez da hegazti bizien azoka eta erakustaldirik egongo aurten. Horiek egiteko debekuari eustea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, hegazti-gripeari aurre hartzeko neurri bezala. Azaroaren 23an, debekua maiatzera arte luzatzea onartu zuen Aldundiak. Azaroaren 2an onartu zen neurria EAE osorako.

Debagoienean hegazti-gripeari aurre egiteko hartzen den bigarren neurria da hori. Izan ere, Aramaion, Arabako Foru Aldundiaren aginduz, hegazti-jabe guztien erregistroa osatzen ari dira, eurekin harremanetan jarri behar badute ere.

Durangon, AHTren aurkako agerraldian parte hartzeko dei egiten dute ibarrekoek

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara batzen den jendetza aprobetxatuta, AHTren aurkako manifestazioa deitu du AHT Gelditu Elkarlanak biharko, eguena, eta Debagoieneko kideek ere parte hartzeko dei egin dute. Landakoko gunetik 17:00etan abiatuta egingo dute manifestazioa.

Bestalde, Durangoko gaztetxearen aldamenean, ingurumenaren aurkako erasoen gainean ateratako materialekin (kamisetak, pinak…) azoka egingo dute zubian; tartean AHTren aurkako materiala ere egongo da.

Euskaldunei sariak Akordeoi Lehiaketan

Bi lehiakide euskaldunek irabazi dute sari bana 13. Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketan: Arantzazu Agirrek, 3. saria; eta Philipe de Ezkurrak, Entzuleen saria. Sari nagusia Vladimir Tchernyckendako (Errusia) izan da, eta bigarrena, Heidi Luosujarvirendako (Finlandia); argazkian, hiru saridun nagusiak Arrasateko alkatearekin. Sari banaketa atzo, hilak 6, egin zuten. Bi euskaldun egotea, emakumeen parte-hartze handia eta maila bikaina izan dira ezaugarri nagusiak. /GOIENKARIA. ARGAZKIA: DV

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

OGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KABIA
ERRETEGIA
Orain astelehenetik larunbatera zabalik
- **Eguneko menua**
- **Plater konbinatuak**
- **Ogitartekoak**
- **Asteburuetan bazkariak eta afariak**

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

EHNA tramitatzeko aukera berezia izango da hilaren 10ean, 17an eta 18an

Eskubide urraketa salatzeko agiria sinatzeko aukera ere izango da

LEIRE KORTABARRIA

Nazioarteko Giza Eskubideen Eguna dela aprobetxatuz, Naziotasun Eskubideen Eguna deitu du Udalbiltzak abenduaren 10erako. Hori dela eta, EHNA tramitatzeko aukera izango da ia ibar osoan. Herri batzuetan hilaren 17 eta 18an izango da.

Naziotasun Eskubideen Eguna dela eta, EHNA agiria tramitatuko du Bai Euskal Herriari ekimenak, Udalbiltzaren eskutik, hilaren 10ean eta 11n; horiek Euskal Herri osorako egunak dira, eta Debagoienean abenduaren 10ean, zapatua, emango dute horretarako aukera. Debagoieneko herri gehienetan hala egingo dute; Antzuolan eta Elgetan, ordea, abenduaren 17rako eta 18rako utzi dute tramitazioa.

Agiria tramitatzeko parada izango da honako ordutegian: Arrasaten, Monterron jauregian, 10:00etatik 13:00etara; Aretxabaletan, udaletxe zaharrean, 11:00etatik 14:00etara; Bergaran, Irizar jauregian, 11:30etik 13:30era bitartean. Eta Eskoriatzan ere tramitatuko dute EHNA.

Elgetan eta Antzuolan, jende asko herritik kanpo egongo dela aurreikusita, atzeratu egin dute. Hala, Elgetan abenduaren 17an izango da, udaletxean, 12:00-14:00 eta 16:00-18:00 ordutegian; Antzuolan, udaletxean ere, 17an 11:00-13:30 eta 18:30-20:00, eta 18an 11:00-13:30 ordutegian.

Oñatin ez dute oraingoz ezer antolatu.

"SALATZEKO EGUNAK ERE BADIRA"

EHNA eskatzeaz gain, eguneko beste ekintza nagusia da agiria erabiltzeko eskubidearen aldeko aldarrikapena sinatzea. Bai Euskal Herriari taldeak hori egiteko eskatzen die EHNA duten guztiei. Europako Batasunari aurkezteko aldarrikapena izango da. Udalbiltzaren esanetan, "egun hauek euskal herritarron naziotasuna ukatua dela salatzeko egunak ere badira".

Udalbiltzako Peio Gascon arduradunak dioenez, EHNA "ez da Euskal Nortasun Agiria, Euskal Naziotasun Aitormena baizik. Norberak sentitzen duen herritartasuna-naziotasuna aitortzeko adierazpen publikoa da". Haren esanetan, EHNA "eskubide baten garapena" da, beste gauza batzuen artean, eta horixe aldarrikatzeko asmoz kokatu dute kanpaina hau Nazioarteko Giza Eskubideen egunean.

IMANOL SORIANO

Langileek EHNA egiteko kanpaina egin zuten orain bi aste. Irudian, Bergarako bulegoa.

Gabonetako erosketetan EHNA erabiltzera animatuko dute

EHNAri indar handiagoa emateko hainbat ekintza egin ditu azkenaldian Bai Euskal Herriari ekimenak, Udalbiltzak antolatuta. Hala, agiria tramitatzeko ezohiko aukera izango da hilaren 10ekoa eta 17koa, Debagoien ia osora hedatuko delako.

Baina EHNAren aldeko ekintzak ez dira hor amaituko. Gabonak inguruan beste kanpaina bat egingo dute, agiria erabiltzeko bultzatzeko kanpaina, hain zuzen ere, *Olentzero, EHNA eskuan* leloarekin. Horren helburua izango da erosketak-eta egiterakoan jendea EHNA erabiltzera animatzea. Horrekin batera, gida komertzial bat aterako dute, agiri hori zein dendetan erabil daitekeen jakinarazteko.

Saharari laguntzeko hainbat ekintza daude Debagoienean

Bergaran elkarte bat sortu dute, Bubiser izenekoa

LEIRE KORTABARRIA

Saharari elkartasuna adierazteko hainbat ekintza antolatu dituzte Debagoienean. Besteak beste, egutegiak saltzen dihardu Nubik, eta janaria biltzen hasiko dira laster. Gainera, Bergaran laguntasun elkarte bat sortu dute.

Saharari elkartasuna adierazteko ekintza asko egiten ari dira egunotan Debagoienean. Ekintza nagusietako bat da egutegien salmenta. Egutegiak Euskal Herriko Sahararen inguruko elkarteek egin dituzte, eta gurean, Nubi elkartea ari da saltzen 10 eurotan. Batutako dirua saharar herriari laguntzeko izango da. Hala, ale bat erosteko, honako zenbakietara deitu behar da: 685 72 48 16 (Lourdes), 685 72 48 17 (Agurne) edo 685 72 48 18 (Maria).

Datorren astean hasiko dira Debagoien osoan Sahararendako atuna, konpresak eta azukrea batzen. Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Gatzagan, ikastetxeetan, hilaren 12tik 21era egingo dute bilketa; dendetan, 17tik 26ra bitartean. Bergaran, dendetan hasiko da lehenengo, hilaren 19an, hain zuzen, eta urtarrilaren 7an bukatuko da. Ikastetxeetan Gabon ondoren egingo dute.

BERGARAN, BUBISER

Bergaran Saharari laguntzeko elkarte bat sortu dute: Bubiser (sahararren hizkuntzan, txori bati deitzen diote hala). Indartsu hasi dira, hasi ere, 14 bat lagun dira eta dagoeneko. Hilaren 15ean, Sahararen egoeraren berri emateko hitzaldia egingo dute Bergarako kultura etxean, 19:30ean.

Bai Nubi, bai Bubiser elkarteetako kide batzuk Saharan bisitaldia egiten dabiltza, eta bihar, eguena, dira Debagoienera buelta tzekoak.

NUBI ELKARTEA

Sahararendako dirua batzeko egutegiak saltzen ari dira

LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ARRASATE

TERE GONZALEZ, IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO PRESIDENTEA

"Gu ahalegintzen gara, batez ere, ikuskizun duina egiten"

Bihar estreinatuko dute *Baserria* zarzuela, Amaia antzokian. Abenduaren 10ean, 11n, 16an eta 17an emanaldi bana egingo dute. Sarrerak badirela eta izango direla esan digu Izaskun Murgia elkarteko zuzendariak, 18:00etatik 20:30era, Amaian:

UBANE MADERA

Dagoeneko guztia gertu?

Nik uste dut oso landuta dagoela. Hamar hilabete daramatzagu, beraz... Jakina, beti dago kezka. Oso gogorra de eszenatokira ateratzea, eta jakitea 1.400 begi pare zuri begira daudela. Beti da posible norbaiti zerbait ahaztea. Gizakiak gara. Dena dela, arduratuta nago eta urduri ere bai. Pentsa, eszenatoki atzean egoten naiz, aurrean ezin dudalako. Iaz butaka nuen gordeta lehenengo ilaran, eta azkeneko egunean han egoteko asmoa genuen eszenatoki zuzendariak eta biok, baina ezinezkoa egin zitzaidan.

Zarzuela bera euskaraz egiteaz gainera, bestelako berritasunik ere baduzue, ezta?

U.M.

Tere Gonzalez, Arrasate Musikalen.

Orkestra zuzendaria, esaterako. Mirandakoa da, baina zuzendari ikasketak egiten dabil Musikenen. Harengana jo genuen, Alfredo Gonzalez Chirlaque lanez gainezka zegoelako, eta oso ondo konpondu gara Alberto Saezekin.

Deskriba egiguzu zer ikusiko dugun Amaia antzokian.

Orkestran 40 bat lagun ibiliko dira; eszenatokian, 50-60 bat, unearen arabera. Dekoratuak guk egin ditugu. Eta jantzina bestetan baino errazagoa izan da. Bakarlariarendako pare bat jantzi-edo egin ditugu, baina besteekin ahalegindu gara sasoiko jantziekiko (1920) ahalik eta fidagarrien egiten. Aurten ez da ikusiko tindatutako ilerik, akaso betaurrekoak erantziko ditugu; sasoiko Euskal Herriko herri bat irudikatu gura dugu.

Urtetako esperientzia igarriko zaizue, ala?

Bai, duda barik. Ez du zerikusirik hasierako *Tabernera* lanarekin. Batez ere, antzerki mailan. Hasi ginenean jendea askoz ere urduriago zegoen; orain, berriz, solteago dabiltza. Gainera, aurten mikrofonoak erabiliko ditugu zartzuela osorako, baita berba egiten duten zatirako ere. Uste dut horrek kalitatea emango diola. Eta abeslariei ere lasaitasuna ematen die. Soinua enpresa ibiliko da guztia antolatzen. Gu ahalegintzen gara geroago eta hobeago egiten, batez ere, ikuskizun duina egiteko eta jendea gustura atera dadin.

Kiroldegi berria zelakoa izango den ikus daiteke Musakolan

UBANE MADERA

Joan den barikuaz geroztik ikusgai dago Musakolan eraikitzen dabiltzan kiroldegi berriaren maketa. Oraingo kiroldegiaren sarreran ipini dute. Getxoko Panoramicas Media enpresak egin du, 11.565,20 euroren truke. Hirigintza Sailak jakinarazi digunez, kiroldegiko harreran utziko dute maketa, lanak bukatu arte.

Lanei dagokienez, lehenengo fasean dabiltza orain: eraikin berriarendako lekua egiten. Horretarako, 80.000 metro kubiko lur atera beharko dute.

Udalak esan du lanak bide onetik doazela, atzerapen barik. Halaber, esan du 21 hilabete dituztela guztia bukatzeko; 21 hilabete kontratua sinatu zutenetik. Eta hori uztailean egin zuten. Instalaciones Deportivas Arrasate aldi baterako enpresa-elkartea dabil kiroldegia eraikitzen, 7.666.639,25 euroko aurrekontuarekin. Madrilgo Corsan Corviam eta Azpeitiko Antzibar enpresek osatu dute enpresa hori.

MIKEL LUPIAÑEZ

Musakolako kiroldegiaren sarreran ipini dute kiroldegi berriaren maketa.

ARAMAIO

Kultura etxearen egoera aztertzen, konponketak egiteko

UBANE MADERA

Kultura etxea egin zutenetik bost urte pasatu dira. Hasieratik sortu ziren itoginak, eta orain ere itoginak izaten segitzen dute, batez ere KZgunean eta ingeles eskolen gelan. Bi gela horietan kuboak erabili behar izaten dituzte, jausten den ura batzeko.

Behin baino gehiagotan ahalegindu da Udala kultura etxea egin zuen enpresak itoginak konponditzan, haren ardura da-eta; Gasteizko Palmira enpresarena, hain zuzen ere. Baina alferrik.

Orain, berriz, Udaleko arkitektoak, Maillok, esan digu kultura etxearen egoeraren gaineko txostena prestatzen dabilela bera, Palmirakoei bidaltzeko. Urtarrilerako gertu izango duela esan du, eta espero duela, hura esku artean izanda, otsailean hasiko direla konponketak egiten. Uste du teilatu osoa jaso beharko dutela.

ESKORIATZA

Aranburuzabala eta Aingeru Guarda berriro urbanizatzeko

IKER BARANDIARAN

Injelan enpresa hasi da Aranburuzabala kalea eta Aingeru Guarda pasealekua berriro urbanizatzeko proiektua idazten. Aurten adjudikatu dute lan hori, baina 2008tik 2010era bitartean egingo dute. Kontua da tranbiaren behin betiko proiektuak eragina izango duela horretan, eta tranbiarena definitzeko zain egon beharko dutela, bestea finkatu ahal izateko. Hala ere, ez dute Aranburuzabala kale osoa berriro urbanizatuko. 1995ean, San Pedro elizatik HUHEZIra arteko zatia berritu zuten, eta zati hori ez dute berriro ukituko.

Lan horiek Jaurlaritzaren Izartu programaren barruan daude, eta diruz lagunduko dituzte.

ARETXABALETA

M.A.

Erakusleiho Lehiaketa bihar hasita

Azken 15 urteotan legez ,Erakusleiho Lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Bihar, abenduak 8, hasi eta 31ra bitartean izan behako dituzte apainduta komertzioek erakusleihoak, eta lehiaketan parte hartzen duen kartela agerian. Nork bere produktuak erabiliko ditu hura apaintzeko, eta epaimahaiak orijinaltasuna, imajinazioa eta Gabonetako mezuaren afektibitatea hartuko dizkio kontuan. Sariak abenduaren 30ean banatuko dituzte: irabazleari 210 euro eta plaka emango dizkiote, bigarrenari 150 euro eta hirugarrenari 100 euro. /M.A.

Ohiko batzarra egingo du bihar San Martin-San Jose Kofradiak, 150. urteurrenean

M.A.

Abenduaren 8an egiten du beti batzar orokorra San Martin-San Jose Kofradiak, eta halaxe egingo du aurten ere. 11:00etan izango da Kurtzebarri eskolan eta ekintza txostena eta kontu balantzea aurkeztearekin batera zuzendaritza batzordeko kideen aldaketa egongo da. Alberto Trojaolak, Arantza Arenazak, Kepa Antxiak eta Alberto Arkauzek utzi egingo dute Kofradia eta beste lau kide hautatuko dituzte horien ordez. Ostean, 12:00etan meza esango dute parrokian urtean hil diren guztien alde.

AURTEN 150 URTE BETE DITU

San Martin-San Jose Kofradia zendutako bazkideez arduratzen da, eta hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio hildakoaren familiari. 1855ean sortu zuten; hortaz, 150 urte bete ditu aurten. Batzarra antolatzen hasi zirenean konturatu ziren urteurrenarekin eta berandutxo zen ezer antolatzeko. Hori bai, Kofradiakoek ondo gordetzen dute elkarteko lehenengo akta liburua. Herrian bazkide gehien dituen elkartea da, 4.377 iazko abenduan.

ANTZUOLA

Bizigune programa abiaraziko du Udalak

AINTZANE IRIZAR

Aurreko asteko egubakoitzean, osoko bilkuran, erabaki zuen Udalak Bizigune programa abiaraztea. Horrela, etxebizitza hutsak beharra dutenen esku ipintzeko hitzarmena sinatuko du Eusko Jaurlaritzarekin.

Abenduko osoko bilkuran egon ziren zinegotzi guztiek (EAJ-EAko hiruk eta Gertu Gaeko ordezkari batek) aldeko botoa eman zioten Bizigune programa abiarazteari.

Programa horren helburua da Antzuolan dauden ahalik eta etxebizitza huts gehien beharra dutenen eskura jartzea.

Horretarako elkarlanean jardungo dute Udalak eta Visesa elkarte publikoak, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren izenean. Biziguneren gaineko informazioa jaso nahi baduzue, udaletxera jo dezakezue.

Zertzelada

Antzuolako Enpresen Hizkuntza Egitasmo Orokorrean parte hartzea erabaki zuen aho batez udalbatzarrak

ENPRESAK EUSKARA BULTZATZEN

Osoko bilkuran onartutako beste puntu bat izan zen Antzuolako Enpresen Hizkuntza Egitasmo Orokorrean Udalak ere parte hartzea. Apirilean egin zuten lehendabiziko batzarra Goizper, Elay eta Matz-Errekako ordezkariek; euskara planak dituzte hiru enpresek eta sortzen zaizkien beharrei era bateratuan aurre egiteko elkartu ziren. Orain, Udalari egitasmo horren berri eman eta parte hartzeko gonbidapena egin diote.

Osoko bilkuran parte hartu zuten lau zinegotziek onartu zuten proposamena.

Bestalde, Antzuolako Udal Etxegintza elkartearen jardueren berri ere eman zuen alkateak, Jose Angel Zabalok, ohi duen moduan. Besteak beste, aipatu zuen Uzarraga-Lizarraga errepideko lanak oso martxa onean hasi dituztela. Buztinzurikoak urtarrilean amaitzea espero dute.

BERGARA

Artekalean eta Arruriagan, azken ukituak egiteko zain

Eguraldi txarragatik atzeratu egin da bi kaleok zirkulaziora zabaltzea

EDU MENDIBIL

Arruriaga eta Artekaleko urbanizazio lanak bukatzear daude. Hala ere, eguraldi txarrak kaleon zabaltzea atzeratu du. Zirkulazio seinaleak jartzea eta Correos bulegoaren parean asfaltatze lanak egitea baino ez da falta.

Artekalean eta Arruriagan egindako lanak Iñaki Aspiazu arkitektoaren proiektuari jarraituta egin dituzte. Lasarteko Ozio enpresa aritu da lanean apirila ezkero. Orain, esan bezala, zirkulazio seinaleak jarri eta Correos parean asfaltatze lanak egiteko zain dira Udaleko langileak.

Arruriagatik udaletxera doan tarteak 177 metroko luzera dauka, eta galtzada-harria bistan laga dute han. 14.000 galtzada-harri inguru jarri dituzte Ozio enpresako langileek azken hilabeteotan. Lanen aurrekontua 1.200.637 euro izan da. Goenkaleko urbanizazioaz Ozio enpresa arduratuko da baita ere, 453.115 euroko aurrekontuarekin.

BERRIGARA

Arruriaga eta Artekalea agindutakoa baino beranduago zabalduko dituzte.

GABONETAKO ARGIAK, HILAREN 13TIK

Bestalde, hurrengo eguaztenean, hilaren 13an, piztuko dituzte Gabonetako argiak. Udaletxeko balkoian, Seminarioan, San Martin plazan eta San Antonioko jaiotzan jarriko dituzte argiak. Udal Kultura zerbitzuak emandako datuen arabera, aurrekontua 6.505 euro da.

ARAU SUBSIDIARIOEN ERAKUSKETA

Arau subsidiarioen aurrerapenaren gaineko erakusketa ikusgai dago udaletxeko osoko bilkuren aretoan: aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik erakusketa hurrengo asteotan. Zapatuetan, berriz, goizez bakarrik zabalduko dute.

OÑATI

San Migel errota zabalik egongo da eguaztena ezkero

Abenduan, egunean bi erakustaldi egingo ditu errotak herritarrendako, doan

OIHANA ELORTZA

Garai batean errota asko zeuden Oñatin; gerra ostean ere 14 zeuden martxan. San Migel errota XV. mendekoa eta Oñatiko kondeena zen. Orain, herriko beste ondareekin batera ikusteko moduan dago.

Debagoieneko Kapirixo elkarteak egin zion Udalari proposamena San Migel errota berriztatzeko, 1997an. Hala, bi urte iraun dute lanek, eta datorren eguaztenean, hilaren 14an, egingo dute inaugurazio ofiziala, 18:30ean. Mercedes Rodriguez Jaurlaritzako Turismo zuzendaria eta Imanol Agote Gipuzkoako Aldundiko Kultura zuzendaria etorriko dira inauguraziora. Udaleko ordezkariak ere egongo dira. 96.289 euro izan da lanen aurrekontua.

ERROTA ZAHARRENETAKOA

Errota asko egon dira Oñatin. San Migel errota zaharrenetakoa da, XV. mendekoa. Bi errotaharri ditu: garia ehotzeko bat eta artoa ehotzeko bestea.

KONTZEJUPETIK

Turismo bulegotik sartzen da San Migel errotara.

Eraberritze lanak bukatuta, turismo eskaintza osatzeko eta helburu pedagogikoetarako erabiliko dute San Migel errota. Interpretazio gune bat ere badago.

HERRITARREK IKUSTEKO

San Migel errota ikusteko, turismo bulegora sartu behar da, handik du-eta sarrera. Abenduaren 15etik 30era, 25a salbu, errota martxan ikusteko aukera izango dute herritarrek. Bi erakustaldi egingo dituzte ia egunero: 12:00etan (baita zapatu eta jaiegunetan ere) eta 17:00etan. Doan izango dira erakustaldiak. Urtarriletik aurrera, bisita gidatuekin batera egongo da errota lanean ikusteko aukera.

ELGETA

Babes Ofizialeko Etxebizitzen gaineko bilera izango da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Torrealdeko Babes Ofizialeko Etxebizitzen gaineko bilera izango da abenduaren 13an Espaloian, 19:00etan. Oraingoz 100 lagunek eman dute izena etxe horietarako, baina bilera irekia izango da edozein herritarrendako.

Besteak beste, zozketan parte hartzeko zein agiri aurkeztu behar diren jakinaraziko dute Udaleko ordezkariek.

BIZIGUNE PROGRAMA

Bestalde, Bizigune programaren bidez etxebizitza hutsak errentan ematen eta hartzeko aukera izango da Elgetan.

Interesatuek udaletxean jaso dezakete horren berri astelehenetan, 09:00etatik 10:00etara bitartean. Suradesak ere emango du informazioa telefono zenbaki hauetan: 943 79 33 99/943 79 06 45.

Udalak etxebizitza zergaren %50 emango du laguntza moduan.

LEINTZ GATZAGA

Kutxazainak zazpi hilabete egin ditu funtzionatu barik

XABIER URTZELAI

Maiatzean jarri zuten kutxazaina udaletxeko hormetako batean, eta bazirudien egun batetik besterako kontua izango zela martxan jartzea. Bada, abenduan zazpi hilabete egingo ditu kutxazainak udaletxean dirurik eman barik. Hasieran, uste zen kutxazainaren konexioak banda zabalagoa behar zuela ibili ahal izateko, baina herriko jaietarako gura zuten martxan jarri. Orain, Gabonetan dirua atera ahal izatea da Udalekoek gura dutena: "Telefonicak denbora luzea behar izan du antena jartzeko. Orain, antena badago, baina beste norbaitek etorri behar du hori martxan jartzera", esan digu Joxerra Perezek.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira bidaltzen den gutunean. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 01
Faxa: 943 76 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Debagoieneko kirol politikaren gainean

Joan zen asteko ostegunean Elgetan izan nintzen Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatutako jardunaldietan, non Kirola eta Osasunaren arteko sinergiak ageriago jartzeko ahalegina egin zen. Sinergiak nabariak izan arren, publikoak diren bi alderdi hauek (Kirola eta Osasuna (Osakidetza) kudeatzen dituzten departamenduen arteko distantziak itzelak direla ere begibistan geratu zen. Beharbada interes ekonomikoak medio, gizarte gaixo batek diru gehiago gastatzen baitu botiketan osasuntsuak baino...

Berriz gaiari helduz, Kirola eta Osasunaren arteko elkarlan hau garatzen diharduten zenbait erakunde, enpresa... beraien esperientzia adierazi zuten. Guztietatik interesgarriena (gizarte interes objektiboena agertu zuena) Kanadako Kino Quebec programa iruditu zitzaidan. Gaur egungo gizartearen sedentarismo egoera larria, endemikoa eta igoeran doana ikusi eta horri aurre egiteko programa abian jarria dute. Beraien helburua bizitza modu aktiboagoa bultzatzea da. Eta horretarako kontzientziazio eta hezkuntza hitzak nabarmendu ziren. Guztien ahotan (udal kirol zerbitzuengandik ere) OOOOO!!!!! eta txaloak entzuten ziren, jarraitu beharreko eredua.

Baina aste honetan zein ekintza berri atera eta batuka!!!! Seriotasun eta gizarte lan konprometituaren eredu bat (Kino Quebec) Debagoien mailako jardunaldi batzuetan entzun eta gero, hiru hilabetetan (mikrouhin sistemaren bidez) ospetsu bihurtzen dituen bi programatan egiten diren ariketa sorta promozionatzen digute Aretxabaletan. Zertarako balio dute Kirol politikari buruzko jardunaldi hauek? Egoera problematikoak agerian utzi eta gero kontrakoa egiteko? Hurrengoa zer da, gure gazte guztiak batuka kamisetarekin ikustea? Edo programa hauetariko bat ikusi beraiek egiten duten ekintza fisikoa telebistakoek ere egiten dutela ikusi eta, okerragoa, identifikatzeko? Zerk bultzatu du udala ekintza hau promozionatzera? Bere Kirol politikaren barruan sartzen al da? Ezjakintasuna eta arduragabekeria alde batera utzi behar dugu, eta batik bat, guztion artean ordaintzen dugu Udaleko langile eta politikariei erantzukizuna eskatu. Gure gazteriari ezin dizkiogu mezu merkantilista hauek bidali. Nahikoa dute jadanik duten buru nahastearekin. Bestela gogoratu besterik ez dago, oso mingarria gertatu arren, Kilometrotako igande ilun hura. Ahaztu al da?

JOSEBA ERAÑA
Kirol eta ekintza fisikoetan lizentziaduna
Aretxabaleta

Oñatiko alkateari

Agur t'erdi, Andoni jauna,

Azken egunotan lortu duzun ospea honaino iritsi denez, horren famatu bilakatu zaituen gaiaren harira hitz pare bat esan nahi nizkizuke.

Badirudi herriko gazte batzuek ilusioz eta neke handiz elkarbizitzarako eta autogestiorako eraiki zuten (bai, eraikina aspalditik zutik zegoen, zutik bezain hutsik, baina barrukoa?...) itxaropenaren gune hori bertan behera botatzeko bi ordu baino ez dituzula behar izan zuk. Zinez azkarra, Andoni.

Zure ekintza ausart hori salatzeko asmoz, ehunka gazte ibili ei ziren kalian gora kalian behera zezenak atzetik zituztelarik. Bi ordu halako eraikina botatzeko, redios! Eta zenbat denbora behar izan zenuen herriko gazteria hori modu kaskarrean bereizteko, sailkatzeko eta banantzeko? Eskolan porrot egindakoak eta etxian arazoak dituztenak Gazte Asanbladara, eta besteak, txintxo-txintxo direnak, Batzokira akaso? Noski, horregatik ez zenituen sekula santan berotu gure garaiko gaztetxeko aulki zoragarri haiek, eta dinot zoragarriak, geureak zirelako, besterik ez.

Zergatik horrenbeste ikara okupazioari, autogestioari? Autodeterminazioari ere? Elkarbizitzarako beste ekinbide bat egon badagoelako frogatzen duelako? Zuen eskuetatik ihes egiten duenak amorruz itsutzen zaituztelako?

Eskolan porrot egiten dutenak edo etxean arazoak dituztenak maite ez dituzuelako?

Badago hemen zerbait normala ez dena, kiratsa dariona.

Bi ordu tamañako txikizioa burutzeko... Bi urte t'erdi preso naukatenetik, kalian gora kalian behera ni ere, Fresnesetik La Santera, La Santetik Fresnesera, Fresnesetik Moulinsera, Frantziako ipurtzulora, eta hemen, aski dela esan dut, ez dutela gehiago nirekin jolastuko esan dut, aski, akabo, maite dudan jendearekin gehiago jolastuko ez dutela esan dut.

Baina zer egin pizti hauen eskuetan txotxongilo bat ez izateko? Guk, Albertok eta biok, patixue blokeatu genuen. Zuk ulertzeko, Andoni, patixue okupatu genuela ba. Arin-arin iritsi ziren zezenak, urdinak hauek, zureak? Eta mitard-era , zigor ziegara, bolandan eraman gintuzten. Hurrengo goizean epaituak izan ginen, 10 eguneko zigorra jaso genuelarik. Hemen ere ez dituzte okupak maite.

Arazoz beteriko pertsonak garenez gero, berehala antolatu genuen guk ere horren gazte ez den Asanblada bat, honen lehenbiziko erabakia mitarra okupatzea izan zelarik. Egun gure okupazio berezi honek, 30 egun bete ditu. Hilabete osoa eta zutik dirau gaztetxeak!!

Zer, Andoni; ez zara animatuko Oñatin hasitako sarraskia honaino ekartzen?

Zenbat denbora beharko zenuke gaztetxe hau ere bertan behera botatzen?

Hau egingo bazenu ez genizuke ez nik eta ez Albertok "Antonio Garzia, bota zure etxia" esango, ez jauna.

Besterik gabe, Andoni, eta txintxo-txintxo izaten jarraitzen duzula ikusirik besarkada batekin agurtzen naiz.

Besarkada estu eta gorri bana Oñatiko Gaztetxearen ametsa egia bihurtu duzuen guztioi. Mila esker:

Gora, txantxiku gazteak! Gora, euskal gazteria!

MIKEL ILLARRAMENDI ZABALETA
Euskal preso politikoa
Moulins-Yzeure

Oñatik ere milioiak bidaltzen Espainiara

Oñatiko txartel bati, uste dut 5 laguni, tokatu zaie milioi zaparrada bat. Hiru milioi euro izan dira Espainiatik etorri direnak Euskal Herrira. Eta Euskal Herrira dirutza hori etortzeko zenbat ematen ote dugu guk?

Nahikoa dira derrigortuta bidaltzen ditugun dirutzak. Gero inor baino abertzaleago eta *eztakitzerago* izango gara, baina dirua gupida barik Espainiara. Primitiboa, kiniela, Gabonetako loteria...

Kuriosoa da gurean gertatzen dena. Tabernarik abertzaleenek ere saltzen dute loteria nazionala (zein nazio?) eta horren jarraian independentzia eskatzen duen kartela edo *pin*-ak saltzen ditugu. Espainiak guk pentsatu baino engainatuago gauzka eta ez gara jabetzen.

IÑIGO FERNANDEZ
Arrasate

Hemeroteka

'Bertsio ofizialak dio...'

Ihesetik hiesera, arazo bera: nork erakutsi behar dio gertatua kontatzeaz gain erakusteko ere baden prentsari?

Hizlandia-ko izotzak ere suak hartzeko moduko aipua Iñaki Lopez aurkezleak ETB2ko *Pásalo* saioan, hiesa hizpide, "arrisku talde nagusia prostituta atzerritarrak" direla esan ondoren, "kondoirik erabiltzen ez duten prostitutak" (sic) zehaztu zuenean. Okerrago, okigarriago Euskadi Irratian bertan, hiesa nork ekarri duen azaltzen.

El Mundo-ren edizio digitalean, beste labainaldi bat gai beraren inguruan: "Cinco millones de nuevos casos de sida en 2005". Zenbat urte daramate bateko eta besteko erakunde eta elkarteek GIB kasuak eta gaixotasuna bi gauza direla esaten, ez nahasteko mesedez, arren eta otoi?

Esan, nork erakutsi behar dio prentsari?

IÑIGO ARANBARRI
'Berria'. 2005-12-04

'Lekuona euskal poeta sakona gogoan'

Juan Mari Lekuonaren heriotzean Euskaltzaindian adiskide eta kide zuten lau euskaltzainek dolumin adierazpenak egin dituzte.

Beste guztiaren gainetik, portaera etikoak bideratu zuen Juan Mari Lekuonaren bizitza, Ana Toledo euskaltzain eta Gipuzkoako ordezkariaren ustez: "Giza harremanetan eta bere obran, etika izan zen nagusia".

Toledoren esanetan, Juan Mari Lekuonaren obran bereizi genezake Lekuona herri literaturaren aztertzaile eta Lekuona poeta. "Aztertzaileari, –esan du Toledok– Unibertsitatearen geletara, herri-literaturaren azterketa eramatea egokitu zitzaion. 1960an, Deustuko Unibertsitateak Euskal Filologian lizentziatura jarri zuen, eta hara joan zen ikastera. Azterketa horietan erakusten duen portaera etikoa zorroztasunaz beterik dago, zorroztasunarekin berarekin uztartu zuen". Hala bada, portaera etiko horrek bultzaturik, zerbait berria esan behar zuenean soil–soilik hitz egiten zuen eta esaten zuen hori oso landuta zeukan.

Ana Toledoren esanetan, Juan Mari Lekuona etengabe ari izan zen adierazpen egokiaren bila, hitz zehatzen atzetik ibili zen beti, eta horrek utzi digu XX. mendeko poeta handi bat.

EUSKALTZAINDIA
www.erabili.com

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ERREDAKTORE BURUA
Leire Kortabarria

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta
Itxaso Berezibar

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Etxerat elkarteak elkarretaratzeak egiten ditu hileko azken egubakoitzetan, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eta estatus politikoa onartzeko eskatzeko. Mikel Illarramendi presoaren emaztea da Lorea Diaz de Gereñu.

OIHANA ELORTZA

O.E.

Lorea Diaz de Gereñu

ETXERAT

“ETAri eskatzen diote tregua, baina senideoi noiz emango diguten galdetzen dugu guk”

HILEKO AZKEN EGUBAKOITZETAN

“Kale agerraldietan ez dugu pertsonalki jasotzen dugun beste berotasunik jasotzen; senideok ere babesa behar dugu eta gizarteko eragile guztiak gonbidatu gura ditugu”

PRESOEN ESTATUS POLITIKOA

“Euskal Herriaren gatazkaren parte zuzena dira euskal preso politikoak, eta euren estatus politikoa eskatzen dugu; Euskal Herrian egon behar dute presoek prozesu horretan”

Gizarteko hainbat eragileren babesa jaso gura duzue hileko azken egubakoitzetan egiten dituzuen kale agerraldietan. Zein da helburua?

Orain arte ere beti egin ditugu kale agerraldiak senideon eta presoen eskubideak aldarrikatzeko. Gizarte osoaren babesa jaso gura dugu, euskal presoen eta senideen gaia gizarteko gaia delako. Horregatik, pentsatu dugu gizarteko eragileekin egotea eta euren babesa eskatzea. Irailetik hona, gizarteko eragile batekin batera egiten dugu elkarretaratzea; sindikatuen babesa, kulturakoena eta hezkuntzan dihardutena jaso dugu azken hiru hilabete hauetan. Abendukoan, berriz, beste eragile batena jasoko dugu.

Zein da zuen aldarrikapena?

Batetik, badirudi gai hau senide eta lagunei bakarrik dagokiela, baina gizarteko gai bat da eta gizartean zabaldu gura dugu guk. Presoak zein iheslariak herri batengatik daude dauden egoeran, bideak gustukoak izan edo ez, eta gizarte osoari dagokio egoerari konponbidea ematea. Senideok, gainera, batzuetan bakarrik sentitzen gara gai honen aurrean, eta babesa behar dugu. Eskatzen diogu jendeari hilean ordu erdi batzea senideen eta presoen eskubideen alde. Hileko azken egubakoitzetan izaten dira elkarretaratzeak herriko plazetan, 19:30ean.

Beste aldarrikapena da kale agerraldietara eramaten dugun pankartak dioena: *Estatus politikoa orain, euskal presoak Euskal Herrira.*

Zer esan gura du estatus politikoa onartzeak?

Eskubide zibilak eta politikoak aldarrikatzen dira, berez. Zibiletan sartzen dira, besteak beste: ikasteko eskubidea izatea, osasun asistentzia izatea eta orain dutena hobetzea eta sakabanaketarekin bukatzea. Bestetik, euskal presoen estatus politikoa onartzeko eskatzen dugu, haiek ere Euskal Herriak bizi duen gatazkaren parte zuzena direlako. Eskatzen da Euskal Herriko espetxeetara ekartzea, eta gatazkaren konponbidean parte hartzea.

Ikusi duzue aldaketarik senideok PSOE gobernuan dagoenetik?

Ez. Espetxe politika ez dute aldatu eta lehen baino okerrago dago guztia: gero eta urrutiago eramaten dituzte presoak, inoiz baino preso gehiago daude espetxe barruan, kartzelak zaharrak dira, zikinak, bizi baldintza oso txarrak dituzte, espetxeetako eskubide txikienak ere urratu egiten dizkiete; adibidez, ez dute ia aktibitaterik, isolatuta egoten dira sarri, bisitak mugatu egiten dizkiete, telefonoz deitzeko denbora jakin bat dute eta espetxe askotan ez diete euskaraz hitz egiten uzten.

Nolako tratua ematen dio espetxe politikak senideari?

Guretako bisiten egoerak dira agerien gelditzen direnak. Denbora laburra izaten dugu, baldintzak ez dira onak, askotan ez digute besarkatzen uzten, eta irainak ere jasan izan ditugu. Horrez gain, gertatu izan zaigu senidea ikusi gabe bueltatu behar izatea etxera, kilometro mordoa egin eta gero espetxean bertan esan dizutelako beste kartzela batera eraman dutela. Frantzian, adibidez, askotan gertatzen da bisita egitera joan eta hango funtzionarioak esatea zure fitxa ez dutela eta ezin duzula senidea ikusi. Bisitez gainera, noski, bidaiaren arriskuak eta nekeak ere astero bizi izaten ditugu.

Laguntza ekonomikorik jasotzen duzue bidaietarako?

Udal batzuek ematen digute dirulaguntza, tartean Debagoieneko udal batzuek. Jaurlaritzak, ordea, dirulaguntzak jasotzeko baldintza batzuk jarri zituen duela urte pare bat inguru. Senidea Frantziako espetxean dugunoi, adibidez, ez zaigu tokatzen, nahiz eta senideok hemen bizi.

Nola bizi dute egoera seme-alabek?

Ume batek ezin du ulertu zergatik dauden espetxean eta zergatik egoera horretan. Heltzen doazen neurrian errealitatea zein den ikusten dute. Guk geuk bi seme txiki ditugu. Badakite aita espetxean dutela eta hara joan behar dugula aita ikustera, baina ez dute ulertzen espetxean zergatik ezin duten jostailuekin eta aitarekin jolas egin, zergatik egon behar duten elkarrekin hain denbora laburra edo zergatik ezin dioten aitari beraiek egindako marrazki bat eraman.

Ikusten duzu heltzen dela senideon egoera eta mezua gizartera?

Saiatzen gara zabaltzen, baina ez dakigu zenbateraino iristen den. Pertsonalki jasotzen duzu babesa, baina elkarretaratzeetan, adibidez, ez da ikusten berotasun hori. Ez dakit lotsa den arrazoia, axolagabetasuna den edo, tokatzen ez zaienez, paso egitea nahiago duten.

Eta Euskal Herritik kanpo jendeak badu senideen egoeraren berri?

Espainiako Estatuan kontra-informazioa da nagusi eta gizartean ezjakintasun handia dago; Frantziako Estatuan, are handiagoa. Gure senidea Frantzian dago eta frantses asko ezagutu ditugu, trenean edo espetxean bertan. Batzuek galdetzen dizute egoerari buruz, baina denak gelditzen dira harrituta presoak hain urruti zergatik dauden ikusita.

Presoa espetxean dago zigorra betetzen, baina hasieratik zigor gehigarri bat ezartzen diote: sakabanaketa. Batetik, presoa txikitu gura du sakabanaketak, Altzugurenen kasua bezala. Senideok ere zigor hori jasaten dugu, psikologikoki, ekonomikoki zein fisikoki. Askok pakete baten sartzen gaituzte guztiok, baina senideok ez dugu zertan zigor hori jasan, ezta legez ere. Gainera, senide guztiak ere ez datoz bat presoaren ideologiarekin, arrazoiekin edo egindakoarekin. Etxerat elkarte bat da, eta era guztietako iritziak daude elkarte horretan ere. Lotzen gaituena da senide bat dugula espetxean, eta elkartasun handia dago elkarte barruan. Denok ikusten dugu eskubideak urratu egiten direla, bai presoenak, baita senideenak ere.

Erraza egiten zaizue bisiten bidaiak antolatzea?

Ez. Garai baten bai, preso gehienak toki jakin batzuetan zeudelako kontzentratuta. Sakabanaketarekin, ordea, ezin da. Parisera edo Madrilera joateko autobusak badaude, eta ahal diren bidaia guztiak antolatzen ditugu, baina autoetan mugitzen gara espetxeetara joateko, eta, normalean, banaka mugitzen gara. Boluntario asko ere badaude, bisitarik ez izan arren gidatzeko prest daudenak. Asko eskertzen da hori, batez ere adineko pertsonei bisitak errazten dizkietelako.

Zenbat preso dira eskualdekoak?

33. Eta horietatik bi daude bakarrik Euskal Herrian; Langraitzeko erietxean daude biak. 649 kilometrotara daude denak, bataz beste.

Zein da euren egoera?

Agirre eta Eperraren osasun egoera larriaz gain, Unai Parot betiko espetxe zigorra jasotzeko arriskuan, legeak euren arabera moldatzen dituztelako. Marixol Iparragirrek urtebetean hiru gose greba egin ditu espetxe barruko eskubideak aldarrikatzeko, eta ez dizkiote eman oraindik. Zuhaitzek ere egin ditu protestak, baina haren egoera ez da hobetu. Illarramendik 45 egun daramatza isolamenduan bisiten baldintzak hobetzeko eskatzen.

Bakearen distantziaz sarritan egin dute berba azkenaldian. Bakeak egoera konponduko luke?

Zerbait egingo balitz, baietz sinetsi gurako nuke. Benetan, ordea, oztopoak baino ez dira ikusten. Itxaropena beti duzu, baina errealistak gara, egoera ondo ezagutzen dugu eta.

Prozesu hori aurrera eramateko tregua eskatzen diote erakundeari, baina noiz emango digute tregua senideoi? Euskal presoek Euskal Herrian behar dute egon, eta horixe eskatzen dugu prozesu horrekin jarraitzeko.

GOIENKARIA
Epaileak hiru jokalari kanporatu zituen Azkoagainen domekan.

Jardunaldi 'beroa' izan dute asteburuan Arrasaten eta Oñatin

Mondrako ordezkariek partiduko irudiak eskatu dizkiote GOITBri

XABIER URTZELAI

Mondrak zapatuan jokatu zuen Berioren kontra (2-3); eta Aloña Mendik domekan hartu zuen Ordizia (3-2). Bi norgehiagoka horietan bero-bero izan zen giroa. Azkoagainen, Ordiziak zortzi jokalarirekin amaitu zuen partidua, eta ez da erraza Atxabalpen gertatutakoa azaltzea.

Atxabalpen, txistu artean erretiratu ziren Asier Matellanes epailea eta marrazain lanetan ibili ziren Iker Gine eta David Merino. Eta zer gertatu zen azaltzeko, 88. minutura arte egin behar dugu salto. Markagailuak 2-2 erakusten zuen; Beriok kornerra atera eta donostiarren errematea eskuarekin urrundu zuen Mondrako Illart Etxeberriak. Kontua da penaltia epaileak adierazi beharrean marrazainak adierazi zuela, eta epaileak norbaiti atera zion txartel gorria. Eta norbaiti diogu, hark ere ez zekielako nor zigortu zuen, eta gainera, ez zuen jokalariaren izena hartu. Illartek uste izan zuen txartela beste taldekideren bati atera ziola.

Kontuak kontu, Mondrako jokalari guztiek zelaian jarraitu zuten, eta Beriok 2-3koa egin zuen penaltiz. Minutu batzuk geroago, Beriokoak konturatu ziren Mondra hamaika jokalarirekin zegoela, eta abisua eman zioten epaileari. Norgehiagoka geratu, eta orduan hasi zen antzerkia: marrazain batekin berba egin, futbol zelaiaren beste alderaino joan bigarren marrazainarekin berba egitera, eta hartutako erabakia, partidua behar baino lehenago amaitzea.

Epaileak zioen Illart zelaitik atera eta gero berriro zelairatu zela, eta federazioaren aurrean hori berresten badu, Illartek zigor handia jasoko du. Behar izanez gero, Mondrak hori horrela ez dela erakusten duen grabaketa aurkeztuko du; astelehenean izan ziren Mondrako ordezkariak GOITBn, irudiak eskatzen. Ikustekoa da ere epaileak egindako akta; akatsez beteta dago.

AZKOAGAINEN, KOLPEKA

Eta Atxabalpen giroa bero-bero egon bazen, beste horrenbeste gertatu zen Azkoagainen. Lehia hasi eta laugarren minutuan izan zen epailearen lehenengo erabaki eztabaidatsua: Aloñaren aldeko penaltia. Unai Arregik kale egin zuen, baina epaileak jaurtiketa errepikatzeko eskatu zuen, norbait aurreratu egin zelakoan. Eta bigarren ahaleginean, barrura. Orduan berotu ziren ordiziarrak, bai jokalariak eta baita zaleak ere. Hala, norgehiagokan zehar harmailetan hainbat bultzakada izan ziren zaleen artean.

Bigarren zatian, jarraitu egin zuen polemikak. Zelaia egoera txarrean, gaitza zen ondo jokatzea, eta behar baino jokaldi gogorragoak izan ziren. Epaileak Ordiziako jokalari bat kalera bidali zuen 26. minutuan, eta azken minutuetan, ordiziarren artean giroa bero-bero zegoenean, epaileak talde horretako beste bi lagun bidali zituen kalera, eta baita entrenatzailea ere.

Mondra-Real Union, bihar

Datozen egunotan Mondrak sei puntu izango ditu jokoan. Zapatuan Berioren kontra aukera ederra galduta, arrasatearrek liderra hartuko dute bihar, eguena, 15:30ean. Norgehiagoka hori joan den zapatuan elurra zela-eta jokatu ez zutena da, atzeratutakoa. Asteburuan, Preferenteak ez du atsedenik hartuko. Arrasateko taldea Irunera joango da, 18. postuan dagoen taldearen kontra jokatzera.

Bigarren postuan dagoen Aloña Mendi, berriz, Mutrikun izango da. Mutrikuarrak zazpigarren postuan daude, eta etxetik kanpo talde makala bada ere –norgehiagoka bakarra irabazi dute–, gainontzeko puntu guztiak etxean eskuratu dituzte. Azkenik, seigarren postuan dagoen Trintxerperen kontra neurtuko ditu indarrak Aretxabaletak. Bi talde horien artean puntu bakarreko aldea baino ez dago.

Kirolabur

ARETO FUTBOLA/IRABAZIKO DUTELA KONBENTZITUTA

Domekan (17:00), Iturriondo Pinturas taldea izango da Eskoriatzan, Lehen Nazional Mailako zeingehiagokan. Taldea bolada txarrean badago ere, Manolo Muñoz, taldeko presidentea, konbentzituta dago domekan puntuak etxean geratuko direla: "Talde oso ona daukagu, baina orain arte zorteak ez digu batere lagundu. Ziur nago domekan ondo irabaziko dugula, eta kontuz ibili gero, datorren astean lider dagoen Gernikaren kantxara joango gara, eta akaso ezustekoa emango dugu han". Taldea ez dago batere pozik hainbat epailerekin, eta joan den astekoa da adibide garbiena; eskoriatzarren ustez, "adar jotzea" izan zen.

PILOTA/ANTZUOLA HERRI ARTEKO TXAPELKETAN

Hamar urte egin ditu Antzuolak Herri Arteko Txapelketatik kanpora, baina 2006an antzuolarrak berriro ere itzuliko dira txapelketa horretara. Horrenbestez, urtean lehenengo aldiz izango ditu Olaldek bederatzi pilotari bere eskura: seniorretan, Josu Agirre, Xabi Biteri eta Iban Unanue; gazte mailan, Aitor Mendizabal, Sabin Muruamendiraz eta Asier Longares; eta kadetetan, Ibai Zabalo, Aitzol Iturbe eta oraindik infantil mailakoa den Jon Iturbe.

Antzuolak azken aldiz txapelketa horretan esku hartu zuenean Aritz Berraondo ibili zen senior mailan.

PILOTA/BERRAONDOK EZ DU ASPEN JARRAITUKO

Aritz Berraondo pilotari antzuolarrak domekan amaitu zuen Asperekin zuen kontratua. Eibarko enpresak kontratua luzatzeko eskaintza egin zion, baina baldintzak ez ziren pilotariaren gustuko. Kontua da eskaintza berrian Aspek ez diola jokatu beharreko gutxieneko partidu kopururik ezarri.

Orain arte, Berraondok urtean gutxienez 60 partidu zituen zehaztuta, eta horren arabera kobratzen zuen. Gutxieneko partidu barik, posible zen hilabeteak ematea jokatu barik, eta hori zen antzuolarrak gura ez zuena. Aritz Berraondok zazpi urte egin ditu Eibarko pilota enpresa ordezkatzen.



MENDIA/ALOÑA MENDIREN IRTEERA

Aloña Mendiko mendi sailak irteera antolatu du abenduaren 18rako. Sodupe aldera (Bizkaia) joango dira (880 metro) eta Eretza eta Arboleda inguruan ere ibiliko dira. Goizeko zortzietan irtengo dira Oñatitik, eta irteera horretan, besteak beste, Bizkaiko meategi ezagunak bisitatuko dituzte. Hala, orain dela hainbat hamarkada orduko bizkaitarrek burdina bilatzeko egindako ahalegina bertatik bertara ikusi ahal izango dute.

Bospasei orduko ibilaldia egin dute eta Peñas Negras gunera ere joango dira. Abenduaren 15era arte egongo da izenematea zabalik, Aloña Mendi tabernan.

SASKIBALOIA/LEHENENGO POSTUA ZIURTATUTA

Joan den astean denboraldiko norgehiagoka txukunena eginda ziurtatu zuen Mugarri Alkesa Arrasate saskibaloi taldeak lehenengo postua. Oraingo asteburuan berriro ere jokatuko dute etxetik kanpo. Oraingoan, Zurututzaren mutilek Nafarroa aldera egin beharko dute, Valsay Ardoi taldearen kontra lehiatzera. Auto Escuela Alavak galduta, bigarren posturaino egin du jauzi oraingo zapatuko kontrarioak. Egia da, baina, atzetik datozen hurrengo lau taldeek 19na puntu dituztela; estu-estu daude gauzak, beraz. Argi dagoena da Tabirako dela igoera faserako sailkatzea komeni ez dena.

Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria

Arrasateko Iturriotz 35ean

Argaltzea eta gorputz tratamenduak
Medikamentu eta orratzik gabe

• Zelulitisa eta “laranja azala” izeneko efektua dira emakume askok izaten dituzten arazo antiestetiko handienak.
Hauentzat ere badugu irtenbidea: loditasuna, tinkotzea, tonifikazioa, hanka nekatuak eta denetariko gorputz arazoak.

• Lan egiteko modua oso erraza da. Problematika mota hori lantzeko 5 aparatu ditugu. Astean bi aldiz landu ostean irtenbidea ematen diogu (gehienez 8 saio hileko).

• Tarifa finkoa: 60 € hileko.
Hilabete honetan, matrikula doan (40 €).

• Eskatuz gero, zure zerbitzura egongo diren bi dietistaren aholkularitza jasotzeko aukera izango duzu.

Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria:
Iturriotz 35 – 607 59 64 29
Eta betiko lekuan ere bai:
Ferrerias 35 – 943 79 88 23
www.angelaestetika.net

Gabonetan
oparitu edertasuna

Tratamendu bereziak egiteko opari-txartelak

Txokolate bidezko tratamendua
•
Harri bidezko tratamendua
•
Eta beste tratamendu batzuk

Etorri eta informa zaitez konpromiso gabe!

Carrión musika denda

Manuel Iradier 20, Gasteiz • Tel: 945 23 07 49 • Fax: 945 23 14 25

FAW-2030CEQM

- Gitarra elektrikoa + anplifikadorea + osagarriak **150 €**-tik aurrera
- Baxu elektrikoa + anplifikadorea + osagarriak **220 €**-tik aurrera
- Bateriak + platerak + jarlekua + burdineria **300 €**-tik aurrera
- Pianoa **750 €**-tik aurrera
- Akustiko erdi berriak **1.200 €**-tik aurrera
- Teklatuak bost zortzidunekoak **95 €**-tik aurrera
- Ekipoak 1.500 wattekoak eta autoanplifikatuak (2/10" A + 2/15" 5.a) **1.885 €**
- Taberna eta diskoteketan instalazioa eta mantentze-lanak.

Zerbitzu teknikoa
Zuzeneko inportazioa

FAW-668

Abenduak 17, 24, 31 eta Urtarrilak 7an atsaldez zabalik 17:00-20:00

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

Berezitasunak
- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Leku berri jatetxea

Irimo barrena / ANTZUOLA
943 76 60 94

Eskaintza
- Menua eta Karta
- Bataioak eta jaunartzeak
- Kintadak

Berezitasunak
- Bakailaua, kokotxa eta almejekin
- Bildotsa erreta
- Txuletak
- Etxeko postreak

- **Astelehen arratsaldetan itxita**

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Goienka 2a

Eguaztena / 2005eko abenduaren 7a

Kultura eta aisialdia

Abenduaren 7tik 16ra

PRODUKTUAK EUSKARAZ
Aldundia eta Udalak
Aldundia eta Udalak

Aldundiak eta hainbat udalek euskarazko produktuen katalogoa kaleratu dute.

AITA MADINA
Euskadiko Orkestra
Claves diskoetxea

Oñatiar konposatzailearen pieza onenetariko batzuk, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik.

MEDIKUAK ESAN DIT...
Joxe Arantzabal
Elkarlanean

Joxe Arantzabal kazetari arrasatearrak minbiziaren gaineko bizipena batu zuen.

CORTABARRIA
X. Ugarte, E. Baranzano
ausArt Records

1830ean oñatiar batzuek Fernando Sorren obra argitaragabeak jaso zituzten. Orain berreskuratu dituzte.

DRAGOIEN ORROA
Fernando Morillo
Elkarlanean/Kilometroak

Arizmendi Ikastolak KM05 dela eta antolatutako lehiaketaren emaitza da eleberri hori.

GOSE
Gose
Oihuka

Bi arrasatearrek eta gasteiztar batek osatutako talde berritzaileak trikitixa eta elektronika batu ditu.

BILUZTU
Anger
MusikHerria

Arrasateko laukoteak orain arteko lan borobilena kaleratu du, eta hitzetan zeharo biluztu dira.

AMETSAREN ARO BERRIA
J. Erostarbe, M. Toledo...
Saure argitaletxea

Etorkinen gaineko lau komiki batu dituzte. Egileen artean, antzuolar eta oñatiar bana.

LUKAS PREST
Lukas Prest
MusikHerria

Eskoriatzako Lukas Prest taldeak bigarren lana kaleratu du. Punk-hardcorea eta salaketa bizia.

GAZTETXEEN GIDA
Askoren artean
Euskal Herriko gazte batzarrak

Euskal Herriko gazte batzar eta gaztetxeek gida osatua kaleratu dute Gaztesarearen laguntzarekin.



CORSARIOS VASCOS
Jose Antonio Azpiazu
Ttartalo

Jose Antonio Azpiazu oñatiarrak *Nuevas historias de corsarios vascos* historia liburua kaleratu du.



NUMENAK – AITA
Unai Busturia, Julen Ribas
Saure argitaletxea

Euskal mitologiaren gaineko trilogiaren lehenengo komiki liburua, bi arrasatearren eskutik.

AMETSEN BARATZEAN
Askoren artean
Elea argitaletxea

Ipuinez, marrazkiz eta poemez osatutako liburua, gaztetxeen alde. Gerardo Markuleta oñatiarra tartean.

PUNKAREN 25 URTEKO...
RIP
Goiena/Gaztelupeko Hotsak

RIP taldearen gaineko erreportajea, kontzertuak eta argitaragabeko grabazioak DVD-CDan.

HERRI DISKETXEA
Askoren artean
MusikHerria

Euskal Herriko 38 talde CD bikoitzean. Tartean, Debagoieneko Ozen, Anger eta Lukas Prest.

ME GUSTA SER
Vulpes
Oihuka

80ko hamarkadako nesken punk taldearen itzulera. Tartean, Arrasaten bizi den Loles.

OKUPAZIOAREN ALDEKO...
Askoren artean
Gaztesarea

Hainbat idazle eta musika talderen okupazioaren aldeko kantuak: tartean, Eneko Barberena eta Anger.

KONTRA
Eraso
Metak diskoetxea

Metalaren alorrean punta-puntan dagoen Zarauzko taldea. Abeslaria, Sergio, Arrasaten bizi da aspalditik.

SAREAN
Muted
Oihuka diskoetxea

Danbakan finalista, metal eta elektronika egiten. Programatzailea, Kristof, arrasatearra da.

ZURE ROKANRROLA
Askoren artean
Gure Irratia

Gure Irratiaren alde egin zuten Euskal Herriko 23 rock taldek. Tartean, Oñatiko Potemkin.

DURANGON, DEBAGOIENDARRAK ARLO GUZTIETAN

Durangoko Azokara Debagoieneko gero eta lan gehiago: aurten, hogeita hamar lan inguru

AZALA: IÑAKI ITURBE

LAZKAO TXIKI

BAT-BATEKO SORGINA

Xabier Amurizak
aukeratutako Lazkao Txikiren bertso eta irudi onenen bilduma.

Nork ez du Lazkao Txiki
nolabait ezaguna
ipuin, txiste, pasadizo
marrazki biziduna?
Bertsolari jeniala
artista euskalduna
zorrotzean zorrotzena
bigunean biguna
hona haren bat-bateko
sorgin-lanen bilduma
atseginik sorginena
eskainiko dizuna.

Xabier Amuriza

Xabier Amurizak abestuak

abenduaren 16, 17 eta 18an

+6,95 €

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:
BERRIAko harpidedunek %20 merkeago erosi ahal izango dute 943 30 43 45 telefonora deituta. Eskaria egiteko azken eguna, abenduaren 12a.

Laguntzailea:
Lazkaoko Udala

Euskaldunok behar dugun berria

KULTURA/ DURANGOKO AZOKAREN 40. ALDIA

Ibarreko sorkuntza erakusmahaian

URTETIK URTERA, KULTURA SORKUNTZA HANDIAGOA EGITEN DUTE DEBAGOIENEKO IDAZLE, MARRAZKILARI, MUSIKARI ETA BESTELAKOEK

IKER BARANDIARAN

Debagoienak lasai asko izan zezakeen erakusmahaia Durangoko Azokan. Hala erakutsi digu aurten ere ibarreko kultura sorkuntzaren gainean batu dugun zerrenda handiak. Musika, literatura, komikia, erreportajeak... arlo guztietako sortzaileak ditugu ibarrean.

Honako hau Durangoko Azoka arrakastatsuaren 40. aldia da. Gero eta zenbaki eta kopuru handiagoak erabili behar ditugu azoka hori deskribatzeko. Izan ere, 400.000 eurotik gorako aurrekontua dauka, eta 309 erakusmahai izango dira Landako gunean. Aipatu beharra dago Landakoren inguruan ere bestelako saltoki eta erakusmahaiak izango direla.

477 nobedade egongo dira salgai azokan: 361 liburu, 34 disko, 43 DVD, 49 aldizkari eta bestelako hamar produktu.

TXELU ANGOITIA - DURANGALDEKO DOKUMENTATEGIA, GEREDIAGA ELKARTEA

Euskal Herri osoko bisitarien zain izango dira aurten 309 erakusmahai, 447 nobedade eta beste euskal produktu asko.

IBARREKOAK, 30ETIK GORA

Debagoienean gero eta produktu gehiago kaleratzen dira, eta kulturako arlo guztietan, gainera. Esaterako, gaur egun ibarrean liburu argitaletxerik ez dagoen arren, Debagoieneko hainbat idazle, marrazkilari eta bestelakoek liburuak kaleratu dituzte, horietatik askok Elkarlanean argitaletxearekin edo haren baitan dauden azpizigiluarekin.

Horrez gain, Legutianoko Saure argitaletxeak ahalegin berezia egiten dihardu komikia bultzatzeko, eta horri esker jakin dugu ibarrean ere gidoilari eta marrazkilari oso onak daudela.

ARANTZAZUK ERE ERAKUSMAHAIA

Arantzazu ibarrean dagoen arren, santutegiak sorkuntza propioa izan du beti. Arrazoi horregatik, Edizio Frantziskotarra Argitaletxeak erakusmahai propioan izango ditu bere produktuak. Aurten honako nobedadeak eramango ditu: *Arantzazu musikaren mendeetan: XIX. eta XX. mendeak; Arantzazu musikaren mendeetan: XVII. eta XVIII. mendeak*; Iñaki Beristainen *Arantzazu: Ermitatxo bat eidazu* eta *Bakegilearen otoitza: Asisko Frantziskoren otoitzaren gaurko irakurketa berria*, hain zuzen ere.

Arantzazuko argitaletxeak kaleratu ez duen arren, *Bitoriano Gandiagaren poema argitaragabeak* liburua ere egongo da eskuragarri, Elkarlanean argitaletxearen eskutik.

BESTELAKO LANAK

Arrasateko Juan Ignazio Montiano idazleak *Dragoi-kilea* liburua eramango du Azokara. Hiria Liburuak argitaletxeak kaleratu du, eta kondaira eta eleberri beltza uztartzen ditu. Patxi Uribarren aramaioarrak, berriz, *Euskal aditza: trinkoa eta laguntzailea: Adorez 10* izango du esku artean. Azken hori Adorez Hiztegiak XXIek kaleratu du. Horrekin batera, Gerardo Markuleta oñatiarrak *Deposito ilegal* izeneko Karlos Linazasororen antologia euskaratik espainolera itzuli berri du.

MUSIKAK, GARRANTZI HANDIA

Bestelako sorkuntzez gain, nabaria da debagoiendarrek musikagintzan duten garrantzia. Hala, azpimarratzekoa da Xabier Ugarte oñatiarrak Fernando Sor musikariaren argitaragabeko piezak berreskuratu izana, Eduardo Baranzanorekin; ausArt diskoetxeak atera ditu. Bestalde, Arrasateko Gose taldeak aire berritzaileak ekarri ditu, trikitixa eta musika elektronikoa bateratuta.

Arrasateko RIP taldeak izan duen garrantzia bermatuta gelditu da Goienak eta Gaztelupeko Hotsak egin duten DVD eta CD zabaletan.

Bestalde, gero eta ibarreko musika talde gehiagok esku hartzen dute elkarte edo ekimen berezien aldeko bildumetan: okupazioaren alde, autoedizioak bultzatzeko, Gure Irratia babesteko...

Harritzeko beste datu bat da Vulpes, Eraso, Brigada Criminal eta beste musika talde arrakastatsu batzuek ere Debagoieneko musikariak dituztela, besteak beste.

Komikien hazkundea

Gure arreta deitu duen gauza bat da aurtengo Durangoko Azokan debagoiendarrek egindako hiru komiki salgai egongo direla. Horietan esku hartu dute bi arrasatearrek eta oñatiar, aramaioar eta antzuolar banak.

Liburu horiek guztiak Legutianoko Saure argitaletxeak kaleratu ditu. *Ametsaren aro berria* liburuan etorkinen gaineko lau komiki batu dituzte. Horietako biren gidoia Maite Toledo antzuolarrak eta Jabier Erostarbe oñatiarrak egin dituzte, hurrenez hurren. Erostarbe ilustratzailea da, baina komiki horietako marrazkiak Natxo Fernandezek egin ditu, Saurek hala eskatuta.

***Numenak - Aita* liburua Unai Busturia eta Julen Ribas arrasatearrek egin dute. Joan den eguenean Arrasateko Monterron kultura etxean aurkeztu zuten eta izugarrizko arrakasta izan zuten. Aspaldian ez da hainbeste jende batu Monterronen. Bi arrasatearrek euskal mitologiaren gaineko trilogia egin gura dute, eta honako hau lehenengo liburua da.**

Debagoiendarrek esku hartu duten hirugarren liburua da *Knossos-eko ondarea*. Saurek argitaratu du, eta gidoilaria eta marrazkilaria ez dira debagoiendarrak, baina komikiari kolorea emateko ardura Aramaioko Iban Astondoak hartu du.

Hertzainak Txibiston, DVD formatuan

Harribitxi bat ipini du Oihuka argitaletxeak denon eskura: Hertzainak taldeak 1991ko urtarrilean Bergarako Txibiston zuzenean grabatu zuen disko bikoitza, DVD formatuan oraingoan. Izan ere, disko hartarako (*Zuzenean 91.01.19*) irudiak ere hartu zituzten. 19 abesti mitiko batzen ditu DVDak, Hertzainak taldearen ezagunenak.

Garik, Josuk, Txanpik eta Kikek –gerora, bosgarren *hertzain* bilakatu zen Bingen Mendizabalen laguntzarekin– astebete eman zuten Bergarako Txibiston entseatzen, eta bi egunetan, barikuan eta zapatuan, grabatu zuten diskoa. Bi emanaldiotan goraino bete zen aretoa eta musikari ospetsu ugari hurbildu zen hara: Fermin Muguruza, Ruper Ordorika... Hertzainak taldekoek ekoiztu eta argitaratu zuten diskoa, baina diru kontuetan musikan bezain jaioak ez zirenez, hondoa jo zuten.

Ezinbesteko testimonioa nostalgikoendako eta garai bateko musika aretorik ezagunenetakoa eta euskal talderik onenetakoa gogoratzeko. Baita Euskal Rock Erradikala ezagutu edo bizi ez zutenendako.

Badihardugurenen txokoa

Ibarreko euskarak presentzia bermatuta dauka urtero Durangoko Azokan. Horretaz arduratzen da Badihardugu elkartea.

Lan berri batzuk eramango dituzte: batetik, *Deba Ibarreko mapa*-n bateratu dituzte ibar osoko 17 herrietako berbeten gainean orain arte egin dituzten ikerketak.

Roberto Altunaren *Oñatiko aditza* liburua berregin eta berriro argitaratu dute.

Bestetik, *Ahozko jarduna hobetzeko proposamena* ere izango dute salgai. Estepan Plazaolak, Karmele Agirregabiriak eta Karmen Bikuñak idatzi zuten.

Azkenik, Bergarako Udalak kaleratutako *Bergara aldeko hiztegia* ere izango dute salgai. Juan Martin Elexpuru da egilea.

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko abenduaren 7a

Abenduak 7-16

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Dantza ikastaroa** abenduaren 10ean eta 11n gaztelekuan, 17:00etan.

BERGARA

► **Hika ikastaroa** antolatu du Jardun euskara elkarteak. Abenduaren 12an, 13an, 14an eta 15ean eta 19an, 20an, 21ean eta 22an emango ditu eskolak Juan Martin Elexpuruk. Kultura etxean izango da, 19:00etatik 21:00etara. Matrikula 25 euro da. Argibideak: 943 76 36 61.

► **Gehixago eta Hobeto** programaren barne, Udal Euskara Zerbitzuak, Udal Euskaltegiak eta herriko ikastetxeek euskara maila hobetzeko ikastaroa antolatu dute. Eguneroko egoeretan, berba egiterakoan egiten diren akatsik ohikoenak zuzentzeko ariketak egingo dituzte ikastetxeetan, eta gurasoek horren berri jasoko dute. Horrez gain, helduendako ikastaroak ere antolatu dituzte. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 91 31 telefonora.

► **Euskarazko jolas, kantu eta ipuinak** ikasteko 16 orduko tailerra antolatu du Udaleko Euskara batzordeak. Astelehen eta eguenetan, 15:00-16:30 edo 18:30-20:00, eta zapatuetan, 10:00-12:00, izango dira eskolak. Abenduaren 15era bitartean dago izena emateko aukera. Argibideak: 943 77 91 31.

► **Internet hasiera ikastaroa** izango da KZgunean abenduaren 12tik 23ra: 09:00etatik 11:00etara edo 16:00etatik 18:00etara. Era berean, banketxeko mugimenduak Internet bidez egiteko ikastaroa emango dute abenduaren 19an eta 20an. Argibideak: 943 76 73 24.

► **Udaleko Kultura Zerbitzuak** antolatuta, hainbat ikastaro izango dira urtarriletik martxora: barreterapia ikastaroa urtarrilaren 9tik martxoaren 27ra, astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara; sukaldaritza begetarianoa eta nutrizioa eguaztenetan, 19:00etatik 21:30era eta sabel dantza ikastaroa egubakoitzetan, 19:00etatik 21:00etara. Izenematea abenduaren 23ra arte dago zabalik. Argibideak: 943 77 91 58.

► **Guraso Eskolak** 6-11 eta 12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso eta tutoreei zuzenduta, urtarriletik apirilera bitartean. Ikastaroetan parte hartzeko hainbat ordutegi egongo dira. Argibideak Udaleko Prebentziorako Zerbitzuan, 943 77 91 26 telefono zenbakian. Izena emateko epea abenduaren 15era arte dago zabalik.

OÑATI

► **Chi Kung ikastaroa** Oñatin abenduaren 16an, 10:00etatik 14:00etara, Estibaliz Ruiz Caballeroren eskutik. Argibideak 943 78 36 60 edo 635 72 08 36 telefonoetan.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Gurutze Muxikaren** margoak Harresi aretoan, hilaren 18ra arte. Aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

► **Javier Ramosen** margolan erakusketa Arregi markoztatze dendan, Maalako Errabalean.

ELGETA

► **Uraren autobusa** iritsiko da Elgetara abenduaren 16an. Kutxak sentiberatze-kanpaina egiten dihardu ura aurrezteko eta ez alferrik galtzeko. Horretarako, erakusketa ibiltaria antolatu dute. Ekimenaren helburuak dira uraren balio naturala ezagutaraztea eta hainbat ideia proposatzea etxean ura aurrezteko. Elgetako plazan hilaren 16an izango da 10:45etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:45era bitartean.

ESKORIATZA

► **Euskarazko jostailuen** erakusketa kultura etxean, abenduaren 9tik 12ra bitartean. Umeendako euskarazko jostailuak eta CD-ROMak erakutsiko dituzte. Erakusketa 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik.

IRUÑEA

► **Joxan Iza** margolari bergararrak erakusketa zabalduko du Iruñeko Pintzel galerian abenduaren 9an, 19:30ean. Erakusketa abenduaren 30era arte izango da zabalik, aste barruan 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:30era. Zapatuetan 10:00etatik 13:30era eta 19:00etatik 21:00etara eta domeka eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Karta txapelketa:** puntu eta briska kanporaketak 14an eta mus eta tuterenak 15ean, erretiratuen elkartean, 16:00etan.

ARRASATE

► **1955ean jaiotako** arrasatearrek bazkaria egingo dute abenduaren 17an, Sara jatetxean. Izena ematea (50 euro) Euskadiko Kutxako kontu honetan egin daiteke: 3035 0047 1604 7106 6211.

► **Uribarriko erretiratuek** Donostiara irteera egingo dute abenduaren 21ean. Bestalde, hilaren 15ean zozketa egingo dute, 17:00etan.

► **19. Jokin Zaitegi Itzulpen Saria** deitu dute AEDk eta Elkarlanean etxeak, Literaturako Nobel sariak euskaratzeko. Aurten, Harold Pinterren antzezlanak itzultzeko 3.000 euroko beka emango dute. *www.elkarlanean.com/jokinzaitegi* web orrialdean argibideak.

► **Hiru Haundixek Hiru Egunetan** abenduaren 8tik 10era, AED elkartearen eskutik. Argibideak: 943 77 12 28.

► **Txatxilipurdik** hainbat ekitaldi antolatu ditu: abenduaren 10ean Durangoko azokara irteera; abenduaren 14an, hitzaldia**:** *Nola aukeratu jostailu egokia*. Okendo ludotekan, 18:00etan; abenduaren 16an, marrazki lehiaketako sari banaketa Santa Marinako ludotekan, 17:30ean; abenduaren 17an Bilboko Gabonetako parkera irteera; abenduaren 20an eta 27an perkusio ikastaroa eta abenduaren 23an Gasteizeko izotz pistara irteera. Argibideak: 943 79 54 46.

BERGARA

► **Herri Eskolen** barnean, *Bazterreko herrien pentsamendua* izenburuko hitzaldia egingo du Jon Sarasuak hilaren 13an, kultura etxean, 19:00etan.

► **1982an jaiotako bergararrek** afaria egingo dute abenduaren 17an. Izena emateko epea abenduaren 14ra arte izango da zabalik. Izena emateko-an 25 euro ordaindu beharko dira Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0009 19 0090 0758 27.

► **Amodiozko Gutunen Lehiaketa** deitu du Jardun euskara elkarteak. Lanak entregatzeko epea urtarrilaren 5era arte izango da zabalik. SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketa ere egingo dute. Argibideak Jardun elkartean, 943 76 36 61 telefono zenbakian.

► **Bergarako Odol Emaileen Elkarteak** aditzera eman duenez, hurrengo odol ateratzea abenduaren 21ean egingo dute, ohiko ordutegian.

► **Erakusleiho lehiaketa** deitu du Udalak. Abenduaren 13tik 27ra bitartean erakusketarako prestatuta egon beharko dute erakusleihoek. Argibideak 943 77 91 59 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

► **Sahararen aldeko egutegiak** saltzen ditu Nubi elkarteak, 10 eurotan. Interesatuek honako telefono honetara dei dezakete: 685 72 48 16.

► **Bertsolari Txapelketa** Nagusiko finalerako txartelak saltzen ari dira Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko euskara elkarteetan, eta Bergarako Elkar liburu-dendan, 25 euroren truke.



► IKUSKIZUNA

GARI, MONTXO ETA JOSELONTXO PAILAZOAK ETA TXAN MAGOA

Udazken Kulturaleko programazioaren barruan, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak eta Txan Magoa izango ditugu domeka arratsaldean Bergaran. Magia, abenturak eta umorea dira ikuskizunaren ardatz nagusiak. Bereziki 3-10 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikuskizuna da. Santi Antero dugu Txan magoa. Txanek arrakasta handia lortu du azken urteotan eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak ere asko ezagunak dira neska-mutikoen artean. Domekan, esan bezala, bere azken trukuak eskainiko ditu Txanek. Hala ere, nahikoa lan izango du pailazoak zaintzen... Txanek adi egon beharko du Gari, Montxo eta eta Joselontxoren bihurrikeriekin...

Non: Bergarako pilotalekuan. **Noiz:** domekan, abenduaren 11n. **Ordua:** 17.30ean **Sarrera:** 2 euro.

Abenduaren 17an
Santa Luzia eguneko
menu berezia!
Txuringo Jatetxea
Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

ELGETA

► **Batzarra:** *Elgetan kirola koordinatu eta sustatzeko lan-taldearen eraketa* egitasmoaren barruan bilera izango da abenduaren 14an kultura etxean, 19:30ean.

ESKORIATZA

► **Hitzaldia:** *Historia de Navarra: el estado vasco.* Hizlaria: Mikel Sorauren, Nabarralde elkartekoa. Abenduaren 16an Ibarraundi museoan, 22:00etan.

OÑATI

► **Galdamesera mendi irteera** iragarri du Aloñako mendi sailak hilaren 18rako.
► **Odol ateratzea** abenduaren 16an Txantxiku ikastolan, 18:00etan.
► **Dementzia, Alzheimer** ikastaroa urtarrilaren 16tik 20ra, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak eta izenematea: Marian Goenaga (943 47 41 82) edo Pedro Bilbatua (665 71 86 95).

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Bergarako Musika Eskolan dabiltzan Antzuolako neska-mutikoen** kontzertua, udaletxean, domekan, hilaren 11n, 18:30ean.

ARETXABALETA

► **Mari Karmen Azpeitia** organo jolearen emanaldia hilaren 16an Andre Mariaren Zeruratze parrokian, 19:00etan.
► **Kokein** taldea abenduaren 16an Ezkutu tabernan, 22:30ean.

ARRASATE

► ***Baserria*** zarzuela antzeztuko dute abenduaren 10ean, 11n, 16an (19:30ean) eta 17an (19:00etan), Amaia antzokian. Sarrerak Amaia antzokian eros daitezke egunero, 18:00etatik 20:30era.
► **3.60 aretoa.** Bideo-klip gaua hilaren 9an, 00:00etan eta Alain Elektronische 10ean, 03:00etan.

BERGARA

► **Opeth eta Burst** taldeak Jam aretoan, abenduaren 8an. Ateak 20:30ean zabalduko dituzte.

ELGETA

► **Aterkings eta Señor No** taldeak abenduaren 16an Espaloian, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Benito Lertxundik** abenduaren 2an eman beharreko kontzertua urtarrilaren 13ra atzeratu dute.

Zinema

ANTZUOLA

■ **OLARAN ETXEA**

Nadie sabe
Egubakoitza: 22:00.

Asterix: hamabi probak
Domeka: 16:30.

ELGETA

■ **ESPALOIA ANTZOKIA**

Tigre y dragón
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Doraemon eta haizearen jainkoak
Eguena: 17:00.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Harry Potter y el cáliz de fuego
Eguaztena: 18:30, 22:00.
Eguena: 17:00, 20:30.

Plan de vuelo: desaparecida
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

El jardinero fiel
Eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguena: 17:00, 19:30, 22:15.

Harry Potter y el cáliz de fuego
Egubakoitza: 18:30, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:30.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Harry Potter y el cáliz de fuego
Eguaztenetik domekara: 16:30, 19:25, 22:20.

Chicken little
Eguaztenetik domekara: 17:00, 18:45, 20:30.

Las crónicas de Narnia
Eguaztena: 12:30.
Eguenetik martitzenera: 17:00, 19:45, 22:30.

El exorcismo de Emily Rose
Eguaztenetik domekara: 20:00, 22:30.

Olentzero eta enbor magikoa
Eguaztenetik domekara: 17:30.

Feliz Navidad
Eguaztenetik domekara: 20:00, 22:30.

Oliver Twist
Eguaztenetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

Plan de vuelo: desaparecida
Eguaztenetik domekara: 22:30.

Txirri, Mirri eta Txiribiton
Eguaztena: 17:30, 20:00.
Eguenetik domekara: 17:30.

La cosecha de hielo
Eguaztenetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Hermanas
Eguaztenetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

Viva Zapatero
Eguaztenetik domekara: 20:00, 22:30.

Match point
Eguaztenetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

Oliver Twist (euskaraz, azpitituluekin)
Eguaztenetik domekara: 17:30.

Elsa & Fred
Eguaztenetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

La vida secreta de las palabras
Eguaztenetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

En sus zapatos
Eguaztenetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

El jardinero fiel
Eguaztenetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Chicken little
Eguenetik domekara: 16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:30.

En sus zapatos
Eguenetik domekara: 19:00, 22:00, 00:30.

Inmersión letal
Eguenetik domekara: 16:30.

La leyenda del zorro
Eguenetik domekara: 16:00.

El exorcismo de Emily Rose
Eguenetik domekara: 16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Las crónicas de Narnia
Eguenetik domekara:16:00, 19:00, 22:00, 00:45.

Mas allá del odio
Eguenetik domekara: 16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Saw 2
Eguenetik domekara: 16:00, 18:00, 20:00, 22:10, 00:30.

Virgen a los 40
Eguenetik domekara: 19:00, 22:20, 00:45.

Harry Potter y el cáliz de fuego
Eguenetik domekara: 15:50, 19:00, 22:10, 01:10.

Plan de vuelo: desaparecida
Eguenetik domekara: 16:00, 18:00, 20:00, 22:20, 00:30.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Las crónicas de Narnia
Eguena: 15:45, 18:45, 21:45.

Harry Potter y el cáliz de fuego
Eguena: 15:30, 18:45, 22:00.

Oliver Twist
Eguena: 16:30, 19:00, 21:30.

Ojalá fuera cierto
Eguena: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

Mas allá del odio
Eguena: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras
Eguena: 16:40.

El exorcismo de Emily Rose
Eguena: 15:35, 17:50, 20:10, 22:25.

Trece entre mil
Eguena: 16:15.

Match point
Eguena: 20:10, 22:35.

El jardinero fiel
Eguena: 19:05, 21:35.

La novia cadáver
Eguena: 16:35, 18:35.

Virgen a los 40
Eguena: 19:35, 21:55.

Princesas
Eguena: 20:20, 22:30.

Olentzero eta enbor magikoa
Eguena: 15:50, 17:50.

Txirri, Mirri eta Txiribiton
Eguena: 15:55, 18:05.

Elizabeth Town
Eguena: 22:20.

Plan de vuelo: desaparecida
Eguena: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

Chicken Little
Eguena: 16:20, 18:20, 20:20.

La leyenda del zorro
Eguena: 16:05, 21:40.

En sus zapatos
Eguena: 19:10, 21:40.

Egueneko programazioa bidali digute bakarrik. Argibide gehiago: *www.yelmocineplex.es* web orrialdean edo 902 22 09 22 telefonoan.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Plan de vuelo: desaparecida
Eguenetik domekara: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 01:00.

La leyenda del zorro
Eguenetik domekara: 17:00, 19:45.

Chicken little
Eguenetik domekara: 16:15, 18:10, 20:05, 22:05, 00:30.

Bibi, la pequeña bruja
Eguenetik domekara: 17:10.

En sus zapatos
17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

El exorcismo de Emily Rose
Eguenetik domekara: 17:00, 19:30, 22:10, 01:00.

Saw 2
Eguenetik domekara: 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Oliver Twist
Eguenetik domekara: 17:00, 19:30, 22:10, 01:00.

El jardinero fiel
Eguenetik domekara: 22:20, 01:00.

La novia cadáver
Eguenetik domekara: 20:25, 22:25, 01:00.

Ojalá fuera cierto
Eguenetik domekara: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Harry Potter y el cáliz de fuego
Eguenetik domekara: 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

La cosecha del hielo
Eguenetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:3o.

Las crónicas de Narnia
Eguenetik domekara:16:25, 19:25, 22:15, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak eguen eta domekan, *El jardinero fiel* eta *La novia cadáver* filmetarako izan ezik.

La novia cadáver: ●●●● / ***Una historia de violencia:*** ●●●● / ***Match point:*** ●●●● / ***El jardinero fiel:*** ●●●● / ***La vida secreta de las palabras:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

SARABAND

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Ingmar Bergman.
AKTOREAK: Liv Ullmann, Erland Josephson.

Saraband, Ingmar Bergmanen azkeneko lana, jatorriz telebistarako egina izan arren, -duela urte t'erdi pasatxo telebista kate baten ikusteko aukera izan genuen-, orain, nahiko modu isilean zinematan estreinatu da.

Bergmanek duela hogeita hamar urte baino zerbait gehiago, *Secretos de un matrimonio* telebistarako eginiko lana zuzendu zuen. Ataletan zatituta zegoen, eta zinematan ere bertsio laburrago bat ikusteko aukera izan zen. Orain, zuzendariak istorio haren bikote protagonista hartzen du (Liv Ullman eta Erland Josephson bi filmetako aktoreak dira) 30 urte elkar ikusi gabe pasa ondoren berriz elkartuko diren senar-emazte ohien istorioa kontatzeko. Ullmanen pertsonaia filmaren narratzailea da: sarrera eta epilogo baten pertsonaiak ikusleari berba egin eta begiratu egiten dio, istorioan sartzen lagunduz. Hau, bere senar ohiaren bila doanean eta urteak ematen dioten lasaitasuna eta sendotasuna erakutsiz, eta musikarekin eta hilda dagoen pertsonaia baten itzalarekin batera, hamar kapituluen zehar, aita, semea eta biloba baten arteko harremanak azaltzen eta garatzen laguntzen duen lokarri bihurtzen da.

Saraband elkarrizketa, aitorpen eta eztabaiden filma da. Pertsonaiek sufritu egiten dute eta euren zalantzekin, bakartasun sentimenduekin eta zoritxarrekin, beste pertsonaiak sufri arazten dute. Elkarrizketak *made in Bergman* dira, oso esaldi gogorrak eta latzak entzuten dira. Filmatzeko erari dagokionez, oso modu soila du: erabiltzen diren margoak motelak dira; pertsonaiak mundutik urrun dagoen toki baten bizi dira, ezaugarri horrek istorioari eta pertsonaiei abstrakzio ukitu bat ematen die; planoen iraupena eta tamaina ondo zainduak daude (aktoreen lehen planoak garrantzi handia dute, beste kasu batzutan iraupen handiko planoak ere badira); eta musika klasikoak pisu handia du.

Duen estiloari eta gaiei fidel jarraitzen du Bergmanek; zuzendari suediarraren filmak maite dituen ikusleak *Saraband* maite egingo du.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
Promozio baliagarria 2005/12/31, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa. Masterreka. 180 m².
• Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
• Ibargarai 110 m². Oso ondo.
• Ibargarai 106 m². Oso ondo.
• Matxiategi 74 m². Berritzeko.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
• Bidekurutzeta 70 m². Oso ondo.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
• Boni Laskurain 90 m². Garajea.
• Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
• Osintxu 100 m². Berritzeko.
• Ortuibar 97 m². Oso ondo.
• Bolu 85 m². Ondo.
• Zubieta 65 m². Terraza.
• Zubiaurre 80 m². Ondo.
Antzuola:
• Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
• Sagazti 88 m². Berria.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxea salgai Bixente Goikoetxea kalean. 945 44 50 26.

Aramaio. Sukaldea, komuna, berogailua. 174.000 euro. 652 70 57 91.

Aretxabaleta. Etxea salgai. Guztiz jantzita, egoera onean. Berogailua. Momentuan sartzeko moduan. 50 m2. 626 60 11 07.

Arrasate. Amaia antzokiko eraikinean etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. 96 metro koadro ditu. 652 73 93 86.

Arrasate. Udalpe auzoan. 69 m2. Hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea, bi balkoi. Oso eguzkitsua. Bizi izatera sartzeko gertu. 686 81 45 59.

Bergara. Etxebizitza salgai Ibargarai kalean. Ia berria. 106m2. 685 75 78 16.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Erabat berritua eta altzariekin. Sukalde jantzia, egongela, hiru logela eta bainugela. Berogailua ere badu. 943 76 93 43 edo 630 65 29 84.

Bergara. Ibargarai kalean. 86 metro koadro erabilgarriak. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. 646 57 95 21.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:
• Erdialdea 160 m². Garajea.
• Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Aranerreka 75 m². Oso ondo.
• Erdialdea 68 m². Oso ondo.
• Matxiategi 80m². Ondo.
• Martoko 60 m². Berritzeko.
• Ibargarai 106 m². Berria.
• Zubieta 80 m². Oso ondo.
• Duplexa, erdialdean 170 m².
• Azkarruntz 60 m². Eguzkitsua.
• Bolu 84 m². Oso ondo.
• Basarte 70 m². Oso ondo.
• Ozaeta 84 m². Ondo.
• Erdialdea 100 m². Berritzeko.
• Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.
ELGETA:
• 70 m². Berritzeko.
SORALUZE:
• Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

Bergara. Koldo Eleizalde. 3 gela eta 2 komun. Ganbara eta trastelekua. Kanpora begira. Egoera onean. Garajea ere aukeran. 658 72 65 25 edo 943 76 27 68.

Bergara. San Antonion etxebizitza salgai. 72 m2. Hiru logela. Erdi jantzia. Eguzkitsua. 160.000 euro. 943 76 40 65 edo 945 33 71 98.

Bergara. Telesforo Aranzadi kalean etxebizitza salgai. 140 m2 ditu eta berritua dago. 699 75 45 46.

Donostia. Etxebizitza salgai Antigua auzoan. 74 m2. Eguzkitsua, berrituta. 360.000 euro. 20:30etik 22:00etara deitu. 645 00 63 63.

Donostia. Etxebizitza salgai Gros auzoan. Hiru logela, egongela, bi bainu eta terraza. 606 28 39 86.

Elgeta. 2. solairua igogailuarekin. Hiru logela. Ganbara. Egoera onean. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Candanchu. Apartamentua eski estazioan. Alokagai eski denboraldian edo urte osorako. 685 70 08 73.

Eibar. Teilatupea (atikoa) ematen dut errentan. Igogailu eta guzti. Toki onean dago. Deitu 22:30 inguruan. 678 82 29 95.

Eskoriatza. 3 gela dituen etxebizitza ematen da errentan. Berogailua. Unibertsitate alboan. Egoera onean. 18:00etatik aurrera deitu. 617 80 26 19.

Vera (Almeria). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan. Jantzita. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza bat hartu gura dugu errentan. 600 73 95 92.

Debagoiena. Bikote batek etxebizitza hartu gura du errentan. Presazkoa. 626 48 43 42 edo 690 28 78 85.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Hiru lagunen bila nabil etxebizitza osatzeko. Aukera bikaina. 697 41 66 24.

Oñati. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 605 74 52 02.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai. Torrekua kalean dago. 630 08 24 17.

Bergara. Garajea salgai Bolun. Bi autorendako tokia dauka. 629 56 29 25.

Oñati. Bidebarrietan. Itxia, auto batendako modukoa. Deitu gauez, mesedez. 615 73 45 53.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje itxia. 38 m2. 656 73 79 54.

Arrasate. Erdigunean, Olarte kalean. Garaje itxia. 616 70 78 91.

Arrasate. Garajea alokagai daukat Obenerrekan. Bi autorendako lekua dauka. 21:00ak eta 22:00ak artean deitu. 943 79 69 41.

Bergara. Garajea Zubiaurren. Auto txiki batendako edo trasteleku bezala erabiltzeko aproposa. 943 76 23 53.

Iragarki sailkatuak

943 25 05 01 edo *sailkatuak@goiena.com*

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokal komertziala salgai Eguzki auzoan. 128 m2. 605 77 39 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakumezko bat behar da etxeko lanak egiteko. Ordutegia: 09:00-14:00. 943 76 12 73.

Neska euskalduna behar da arratsaldeetan umea zaintzeko. 635 72 76 59.

Oñati. Emakume bat behar da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 78 36 45 edo 619 30 07 79.

Oñati. Hilabeterako emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 630 08 24 17.

402. ESKAERAK

Arrasate. Mutila lanerako gertu. Sukaldean laguntzaile moduan edo garbiketa lanak. 08:00etatik 16:00etara egingo nuke lan. 666 83 21 95.

Bergara. Neska euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

Debagoiena. Emakume euskalduna umeak edo nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 75 18.

Debagoiena. Neska euskalduna prest gaixoak zaintzeko ospitalean, gauez edo egunez. 653 71 53 61.

Gidari lanak egiteko prest. Gaztea. Esperientziaduna. C eta E gidabaimenak ditut. 667 02 63 71.

Neska garbiketak lanak egiteko gertu edo pertsona nagusiak zaintzeko; etxean berarekin bizitzeko gertu. 659 20 40 92 edo 943 76 15 58.

Psikologo venezuelarra umeak edo adinekoak zaintzeko. Graduondoko ikasketak egiten ari naiz EHUn eta umeekin lan egin izan dut. 695 70 11 57 edo 943 76 65 67.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Pertsona bat behar da Gestio Administratiboko eskolak emateko. 943 79 83 96 edo 609 90 74 14.

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industriala eskola partikularrak emateko prest. Hainbat ikasgai. Maila guztiak. Esperientzi handia. Telefonoa: 630 71 35 83.

Bergara. Eskola partikularrak emango nizkieke DBHko ikasleei. 675 70 17 63.

Bergara. Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. 690 20 54 75.

Bergara. Kimikan lizentziadunak maila guztietako eskola partikularrak ematen ditu. 652 76 70 12.

Bergara. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta 1. eta 2. mailetako eskola partikularrak ematen dira. 943 76 12 49 edo 635 20 76 90.

Debagoiena. Eskola partikularrak emango nizkieke DBHko eta Batxilergokoei. Ingeniaritza teknikoko ikasketak ditut. 943 79 08 00.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Fiat Ducato Capuccina. Bost leku. 1999koa. 651 70 79 96.

California Coach furgoneta salgai. 1996koa. Oso ondo zaindua. 86.000 km. 19.000 euro. 618 05 39 55.

Fiat Tipo autoa. 1996koa. 82.000 kilometro. 1.500 euro. 656 74 80 47.

Ford Sierra XR 2.0 i autoa salgai. 4x4 trakzioduna. Egoera onean. 605 75 96 11.

Ford Focus 1.8 TDCI autoa salgai. 100 ZP. 5 ate. Ondo zaindua. 665 73 65 95.

Golf GTI autoa salgai. SSAF. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Hypermobil 564 autokarabana salgai. 136.000 km. Turbo diesela. 6 toki egunez eta 4 gauez. 945 44 52 67.

Malaguti Firefox motorra salgai. 750 euro. 678 33 05 19.

Mitsubishi Montero IO 2.0 GDI mendiko autoa salgai. 60.000 km. 12.500 euro. Gorka. 657 71 01 61.

Peugeot motorra salgai. 49 cc. 500 euro. 628 52 54 46.

Peugeot Partner. 2000 HDI. Lau urte ditu. Egoera onean. 627 21 87 49.

Scooter Honda Phanteon salgai. 13.700 km ditu. BICU. Oso ondo. (Jabi). 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

BERGARA
DEPOR TABERNAN ZERBITZARIA BEHAR DA.
629 26 88 51

ESKORIATZA
GAZTELEKURAKO LANGILEAK BEHAR DIRA.
ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO.
943 79 54 46
gazteak@txatxilipurdi.com

Volkswagen Golf GT autoa salgai. 100 ZP. IAT 2007ra arte. 5.600 euro. 656 75 49 25.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Mendiko txerriak saltzen ditut. 605 76 10 00.

703. EMAN

Artzain txakurkumeak oparitzen dira. 943 76 12 93.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Abarkak. Gomazkoak. Beltzak. 31 zenbakia. 15 euro. 687 01 79 82.

Bergara. Kutxa-izozkailua salgai. 943 76 50 26.

Bizikleta salgai. Hamar urteko umearentzako modukoa. Prezio ona. 943 79 11 24.

Bizikletak salgai. TKV txirrindulari taldearen errepideko bizikletak. 1.000 euro. 670 71 00 42.

Dortoka. Lurrekoa. Urte eta erdi du. Osagarriak eta janaria. 150 euro. 943 08 18 13.

Forfaita. Hamalau egunekoa. Formigaleko estazioa (Aramon). 669 94 67 77.

ANGIOZAR
ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

OÑATI
KIWIAK SALGAI. IRABAN BASERRIKOAK.
10 KILOKO KAXAK.
KALITATE/PREZIO ONA.
943 78 18 32

Hezegailua salgai. Haurren logelan jartzeko da. 20 euro. 687 01 79 82.

Mahaia. Sukalderako. 90x90 zentimetro. Luzatzekoa. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

Sofa, Relax markakoa eta beix kolorekoa. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

Soinu txikia salgai. Hiru ahots ditu. Deitu arratsaldeetan. 630 26 01 05.

802. EROSI

Billete zaharrak eta txanponak erosten ditut. Mota guztietakoak. 945 44 50 44.

806. GALDU

Bergara. Orain dela 15 egun, neska baten txamarra urdina galdu genuen. Alboan kremailera. 943 03 88 03.

807. AURKITU

Telefonoa aurkitu dut, poltsikokoa. Udala inguruan, mendian. Joxe. 943 79 41 26.

9/ HARREMANAK

903. DEIAK

Abeslaria behar du Bergarako X-at musika taldeak. Metal gogorra. Kontaktua: Dubi. 678 92 77 15.

Edozein premiatarako:
• Antzutasuna
• Erditzeak
• Antisorgailuak
• Menopausia
• Ekografiak (4D)
• Titietako gaixotasunak
• Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
• Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:
• Antonio Estomba
• Fernando Cristobal
• Alfredo Otalora
• Jose M. Gomez
• Ainhoa Larrea
• Domingo Murgiondo
• Miguel Gabarain
• Maria Jose Ruiz
• Fatima Azkue
• J. Rodriguez
• Mikel Gorostidi
• Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

AIPAGARRI

Pruden Gartzia
OÑATI

Juan Zelaia Saiakera saria irabazi du Pruden Gartzia historialari oñatiarrak. Juan Lazarraga idazle arabarraren inguruko testuinguru historikoa eta literarioa bildu ditu, eta lan horregatik eman diote saria. Euskaltzaindiaren Azkue liburutegiko zuzendaria da Pruden Gartzia.

Alberto Iñurrategi
ARETXABALETA

Torrelloko mendi zinemaldian, gidoi onenaren Boreal saria jaso du *Gure Himalaya* ikus-entzunezkoak. Alberto Iñurrategik eta Koldo Izagirrek egindako gidoia da, hain justu, saritu dutena. Aurten, 23. aldiz egin dute jaialdia, eta gai horretan munduan dagoen jaialdirik garrantzitsuenetakoa da.

Jon Berezibar
ARRASATE

Dokumental amateurraren lehen saria irabazi du Jon Berezibar gazte arrasatearrak Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran. Hain zuzen, *Kabana* izeneko dokumental laburragatik irabazi du. Beste bi lagunekin batera egin du lana eta bere lehen proiektua da. 20 minutuko dokumental laburra da.

Rafael Raso eta **Glori Azkargorta** eskoriatzarrek 25 urte bete dituzte ezkonduta abenduaren 7an. Zapatuan, botoak berrituko dituzte Dorletako santutegian, Leintz Gatzagan. Lagunekin eta familiarekin ospatuko dute hori. Zorionak, familia guztiaren partetik!

Kristina Sainz eta **Igor Kortabarria** azaroaren 26an ezkondu ziren Oñatiko Mikel Goiaingeruaren elizan. Ondoren, Zumarragan izan zuten bazkaria lagunekin eta senideekin. Argentinan dira orain, eztei bidaian. Zorionak!



Joxerra Zubizarreta eta **Marian San Vicente** eskoriatzarrak orain dela 25 urte ezkondu ziren Dorletako santutegian, Leintz Gatzagan. Domekan bazkaria egingo dute eta familiartekoekin ospatuko dute. Zorionak, familiakoen partetik!

Estella Oianguren arrasatearra eta **Iñigo Zuazo** iurretarra zapatu eguerdian ezkonduko dira Iurretako udaletxean. Bazkaria Arrazolan egingo dute eta eztei bidaian Thailandiara joango dira. Zorionak, bikote, bihotz-bihotzez, familiakoen partetik!

Trinidad Roman eta **Francisco Escobales** orain dela 50 urte ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatzeko meza izan dute Dorletako santutegian eta ondoren bazkaria egin dute senideekin batera. Zorionak, familiakoen partetik!

Pepe eta **Florentina** 1950eko abenduaren 1ean ezkondu ziren. Atzo, eguena, beraz, 55 urte egin zituzten ezkonduta. Zorionak, bioi, seme-alaben, biloben eta, bereziki, Eider birbilobaren partetik!

HILDAKOAK

Andresa Bikuña Markuleta. Bergaran, azaroaren 17an. 94 urte.

Jesus Olabarria Gisasola. Bergaran, azaroaren 20an. 85 urte.

Benito Gaztañaga Garai. Aretxabaletan, azaroaren 21ean. 79 urte.

Mariano Ibeas Moradillo. Arrasaten, azaroaren 23an. 99 urte.

Mariano Aiastui Biteri. Oñatin, azaroaren 23an. 67 urte.

Bizente Urtzelai Heriz. Arrasaten, azaroaren 24an. 84 urte.

Niceto Altuna Osoro. Bergaran, azaroaren 24an. 83 urte.

Maria Begiristain Plazaola. Aretxabaletan, azaroaren 24an. 90 urte.

Angela Garai Elkorobarrutia. Aretxabaletan, 24an. 94 urte.

Maria Teresa Bartolome Fernandez. Aretxabaletan, 26an. 71 urte.

Jesus Errasti Idigoras. Aretxabaletan, azaroaren 28an. 89 urte.

Patricia Gabilondo Zaita. Bergaran, azaroaren 29an. 90 urte.

ESKER ONA

Gregoria
Fernandez de Arroiabe Jauregi

Arrasaten hil zen 2005eko abenduaren 4an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2005eko abenduaren 7an.

URTEURRENA

Sabin
Zelaia Arregi

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 11n,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Luisa
Maiztegi Gantxegi
Misiolari sekularra, Bergarako Muinondo baserrikoa

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 11n,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.

†

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Estanis
Kortabarria Azkarate-Askasua

Bergaran hil zen 2005eko abenduaren 1ean, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko abenduaren 7an.

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Kosmetikari buruz hitz egingo dugu

Kosmetiko baten helburua da azala zaintzea eta hobetzea.

Krema hidratatzaile aukera handia dago merkatuan.

Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren programak edo Derm-Antiaging sortzen dira:

Aurpegia zeharo garbi eta kalterik jasan gabe lagatzeko esne-garbigailu bat eta toniko bat erabiliko ditugu (dagokion pHrekin); ondoren krema HIDRATATZAILE **bat emango diogu, ez dadin lurrundu epidermisean dagoen ura. Izan ere, hori gertatzen bada hidratazio barik geratuko da azala**. Horrela, gainera, behar duen elastikotasuna lortuko du eta babestu egingo du kaleko hotzetik, leku itxietan egoten den berotik, poluziotik eta nire azala kalte dezakeen beste edozertik. Krema on batek, ura emateaz gain, antioxidatzaile den C bitamina eman behar dio azalari. Urteko sasoiaren arabera eguzkiko argiaz babestuko gaituen babes osoa. Ondoren makillatu egiten bagara, politago egoteko bakarrik da (makillajeak ez du tratatzen); makillajea arina eta kalitatea onekoa bada ez dauka zertan kalterik egin.

Erabiliko dudan krema hidratatzailea **nire beharretara egokitutakoa izango da, eta ez da edozein krema izango. Nire azalak behar konkretuak ditu.**

Krema NUTRITIBOA gauez bakarrik erabiliko dut; (nahiz eta batzuetan behar konkretuengatik goizez ere erabili). Gauza bera diot **SENDOTZAILEEI buruz, beti gauean, orduan baita momentu onena azalarentzat.**

Mireni erantzuna:
Zer desberdintasun dago 20 euro eta 50 euro balio duten bi kremaren artean?

20 euro balio duen kremak daukan konposaketa eta eragina askoz txikiagoa da 50 eurokoak daukan konposaketa eta eraginarekin alderatzen badugu. 20koaren basearen konposaketa: olio mineralak, baselina eta lanolina (horiek oso akzio txikia daukate, eta azala gainetik bakarrik bustitzen dute). 50ekoak osagai hobeak izango ditu, hala nola: silizio organikoa, polimukosaridoak, peptidoak, exapeptidoak eta kolagenoaren eta elastinaren aitzindari diren beste osagai aktibo batzuk. Baita azalaren geruza sakonenetara heltzen diren beste substantzia batzuk ere.

Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma



		*Deitura / Emaitza, dohaina		Asaldura / Nabari		Atomo kargatua
		Bizkaiko udalerria / Euskal diskoetxea				
Itxuraldatu / Erosta, auhena		Zabaldu / Norentzat atzizkia				
Euskal fonema / Larrua		Hitz ematea / Legez, bezala				Launako multzoetan
				Aluminioa / Poesia, olerki		
Sarrera / Mililitro			Burdinola / Lo egiteko altzairu			
		Zornea sortu / Hegazti zangaluze				
501 / *Izena		Zerbaiten maila / Zezen zikiratu				
					Area / Iparretarrak	
Du, niri (ald) / Hozka, ausikiz			Muskulu-uzkurdura / Kiloa			

BILABILA7





UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

UNTXIAREN BOTEREA

Tesia idazten ari zen Aralarko untxiaren istorioa da honako hau. Goiz batez, pagadiaren erdian basakatua aurkitu zuen:

– Untxia! Jakin al liteke zertan ari zaren?

– Tesia idazten ari naiz.

– Tesia? Zertaz?

– Untxiak basakatuak baino gehiago direla frogatzen duen tesia.

– Ez baduzu sinesten, zatoz nire etxera eta ikusiko duzu —erantzun zion untxiak—.

Basakatua, harroa eta uste handikoa zenez, untxiaren etxera joan zen eta geroztik inork ez du haren berririk jakin.

Untxiak zakurra ikusi zuen pagadi berean, eta:

– Zertan zabiltza, untxi? —galdetu zion txakurrak—.

– Tesia idazten ari naiz.

– Tesia? Zertaz?

– Untxiak zakurrak baino gehiago direla frogatzen duen tesia ari naiz idazten.

– Ja, ja, ja! — txakurra ere trufaka—.

– Ez baduzu sinesten, zatoz nire etxera eta ikusiko duzu —erantzun zion untxiak—.

Eta untxiak egindako gonbitari jarraiki, txakurra bere etxera joan zen. Geroztik inork ez du ikusi.

Eta untxiaren etxera iritsi zirenean, atarian, basakatuaren hezurrak ikusi zituen, soro erdian zakurrarenak, eta etxera sartu zirenean... hura ustekabea! Egongelaren erdian, lasai arraio eserita, tesiaren zuzendaria zegoen: otsoa.

Ondorioa garbia da: tesietan, garrantzizkoena ez da gaia, tutorea baizik.

SOLUZIOAK

A	K	I	K	I	S	U	A
K	I	T	●	D	I	T	●
A	●	R	E	I	B	A	X
N	I	E	H	●	I	D	●
U	D	L	O	Z	●	L	M
A	L	O	●	E	T	A	●
L	A	●	A	L	A	Z	A
●	N	I	Z	●	Z	T	●
A	I	R	I	Z	T	N	I
I	K	E	R	I	●	A	●
O	A	G	U	●			
I	R	A	M	E			
●	I	●	A	●			



Abenduaren 12a: 068 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, abenduak 12, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Abenduaren 12ko sariak

- **150 euroko BONO** bat, Bergarako Bidekurutzeta 7an dagoen **LAIÑO** dendan erosketak egiteko.
- Bi gonbidapen **ELGETAKO ESPALOIAn** izango den Señor No eta Aterkings taldeen kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA BIDAIA ZORAGARRIA!
Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu abenduaren 16an, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBER

ETXEKO TXIKIENDAKO SARIAK

Umeentzako joko dibertigarriak eskuratu nahi badituzu, txartela bete eta zozketan sartuko zara.
Bidali txartela hona: Goiena. 132 pk. 20500 Arrasate.
Irabazleen izenak abenduaren 19ko *Asteleheneko Goienkaria*-n jakitere emango dira.

- Izen-abizenak:. . . . . .
. . . . . .
- Umearen adina: . . . . . .
- Telefonoa: . . . . . .
- Helbidea . . . . . .
. . . . . .
- Herria . . . . . .
- Posta-kodea: . . . . . .

Baldintzak:
- Nahi beste txartel bidali ahal izango dira.
- Txartelak jasotzeko azken eguna, abenduak 15.
- Ez da fotokopiarik onartuko.

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:
Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara arte.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

067 zozketa **saridunak**

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

PHILIPS laser irrati-kasete bat
- Maite Borque Garcia (Arrasate)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko.
Saridun bakoitzari bi emango zaizkio.
- J. Cruz Irizar Arabaolaza (Oñati)
- Arantza Baltzategi Juldain (Arrasate)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko.
Saridun bakoitzari bi emango zaizkio.
- Julia Osa Alberdi (Bergara)
- Lurdes Aldalur Uriarte (Aretxabaleta)

GOITBBERRIAK

Laino dendaren snow taula Eider Velez de Mendizabalentzat

Harmailatik saioan snow taula zozkatu berri dute. Ikus-entzuleek lehiaketan esku hartzeko aukera izan dute SMS bidez. Erantzun ugari jaso dituzte telebistan, eta guztien artean Eider Velez de Mendizabal bergararra izan da irabazlea. Hain justu ere, Laino kirol dendari esker egin ahal izan dute snow taularen zozketa Goiena Telebistan.

Oraingo egunetan, programazio berezia izango da GOITBn

Eguenean eta egubakoitzean, programazio berezia egingo dute Goiena Telebistan. Kontua da telebistan ere bi egun horietan jai hartuko dutela eta ez dituztela eguneroko informatiboak egingo. Gainerako programak, ordea, izango dira. *16 mm* saioan film berria estreinatuko dute eta *Berbaire*-n Durangoko azoka izango da berbagai.

'Munduari bueltaka' saioa 'Bidetxurretik' programaren ordez

Munduari bueltaka bidaien saioak ordezkatu du *Bidetxurretik* programa. Datozen hilabeteotan, beraz, bidaien zenbait saio izango dira ibarreko telebistan. Oraingo astean, Manaslura eramango gaitu *Munduari bueltaka*-k. Era berean, urtarrilari begira, saio berriak lantzen ari dira telebistako arduradunak.

GOITBPROGRAMAZIOA

EGUENA, 8

Idiazabalen jokatutako bertso saioa
15:45
Hilaren 18an jokatuko da bertso txapelketako finala Bilbon. Idiazabalen izandako kanporaketa ikusi ahal izango duzue.

07:55 Emisio hasiera.
08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
11:00 Behazulo.
11:30 Ilunpean.
12:00 Motzean eta Zera dio.
12:15 16 mm.
12:45 Jaun ta jabe.
13:45 Didjeridu.
14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak.
14:45 Jazz mintegia.
15:15 MKT.
15:45 Ikuskizuna: Idiazabalgo bertso txapelketa.
16:45 Danbaka.
17:00 Erreportajea.
17:30 Marrazki bizidunak. Bilduma
19:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa
19:30 16 mm.
20:00 Behazulo. Nekazari gazteen etorkizuna izango da mintzagai Goiatz Aranak zuzentzen duen saioan.
20:30 Zera dio eta Motzean.
20:45 Ilunpean.
21:15 Teknopolis.
21:45 Berbaire: Durangoko azoka
22:15 Elkartasun bideak: Ekuador
22:45 16 mm.
23:15 Emisio amaiera.

EGUBAKOITZA, 9

Luar na Lubre talde galiziarra entzuteko aukera
16:15
Luar na lubre folk musika talde galiziarrak Bergaran eskainitako kontzertua ikusi ahal izango duzue arratsaldean.

07:55 Emisio hasiera.
08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
11:00 Klip bilduma.
11:30 Iparrorratza.
12:00 Didjeridu.
12:30 Eltze beroa. Kremaz betetako krepak.
12:45 Erreportajea.
13:15 Elkartasun bideak.
13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak.
14:30 Bidetxurretik.
15:00 Ilunpean.
15:30 Behazulo.
16:00 MKT musika.
16:15 Ikuskizuna: *Luar na lubre*ren kontzertua.
17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma
18:45 Klipak. Musika bilduma.
19:15 Iparrorratza.
19:45 Behazulo.
20:15 Zera dio eta Motzean.
20:30 Ilunpean.
21:00 Didjeridu.
21:30 16 mm. Lekeitioko bideo bilera eta *Benimaru* film laburra.
22:00 Berbaire.
22:30 Didjeridu.
23:00 Emisio amaiera.

ZAPATUA, 10

'2057; odisea bat kanposantuan' film laburra
22:45
Amagoia Lasagabasterrek aurkezten duen saioan Oñatiko talde batek eginiko *2057; odisea bat kanposantuan* film laburra ikusgai.

07:55 Emisio hasiera.
08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
11:00 Behazulo.
11:30 Ilunpean.
12:00 Motzean eta Zera dio.
12:15 16 mm.
12:45 Jaun ta jabe.
13:45 Didjeridu.
14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak.
14:45 Jazz mintegia.
15:15 MKT.
15:45 Ikuskizuna: Idiazabalgo bertso txapelketa.
16:45 Danbaka.
17:00 Erreportajea.
17:30 Marrazki bizidunak. Bilduma
19:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa
19:30 16 mm. .
20:00 Behazulo. Nekazari gazteen etorkizuna izango da mintzagai Goiatz Aranak zuzentzen duen saioan.
20:30 Zera dio eta Motzean.
20:45 Ilunpean.
21:15 Teknopolis.
21:45 Berbaire: Durangoko azoka
22:15 Elkartasun bideak: Ekuador
22:45 16 mm.
23:15 Emisio amaiera.

DOMEKA, 11

Marrazki bizidunen bilduma
08:00
Etxeko neskamutikoek aukera polita izango dute domeka goizean: Marrazki bizidunen hiru orduko emanaldia.

07:55 Emisio hasiera.
08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
11:00 Klip bilduma.
11:30 Iparrorratza.
12:00 Didjeridu.
12:30 Eltze beroa. Kremaz betetako krepak.
12:45 Erreportajea.
13:15 Elkartasun bideak.
13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak.
14:30 Bidetxurretik.
15:00 Ilunpean.
15:30 Behazulo.
16:00 MKT musika.
16:15 Ikuskizuna: *Luar na lubre*ren kontzertua.
17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma
18:45 Klipak. Musika bilduma.
19:15 Iparrorratza.
19:45 Behazulo.
20:15 Zera dio eta Motzean.
20:30 Ilunpean.
21:00 Didjeridu.
21:30 16 mm. Lekeitioko bideo bilera eta *Benimaru* film laburra.
22:00 Berbaire.
22:30 Didjeridu.
23:00 Emisio amaiera.

ASTELEHENA, 12

'Harmailatik' saioan eski tarte berezia
21:15
Arrasateko Loramendi kirolak kirol dendakoek eski materialaren gaineko zenbait gomendio emango dizkigute.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Behazulo.
14:15 Eltze beroa.
14:30 M1.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Munduari bueltaka: Manaslu
15:30 M1.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ilunpean.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Didjeridu.
17:30 Motzean.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Berbaire.
18:15 Jaun ta jabe.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 16 mm.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Berriak.
22:15 Harmailatik.
22:45 Albisteak.
23:15 Jazz zikloa.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera

MARTITZENA, 13

'Berbaire' saioan gaurkotasuna mintzagai
22:15
Marijo Deogracias kazetariak aurkezten duen saioan gaurkotasunaren gainbegiratua egingo dute solaskideek.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazkiak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Jazz mintegia: Al Foster.
14:15 Zera dio.
14:30 M1.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Elkartasun bideak.
15:30 M1.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Harmailatik.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albisteak.
17:00 Jazz.
17:30 Danbaka.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Erreportajea: Loizu hiltegia.
18:15 Munduari bueltaka.
18:45 Albisteak
19:00 Klipak.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Ilunpean.
21:45 Berriak.
22:15 Berbaire.
22:45 Albisteak.
23:15 Behazulo.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera

EGUAZTENA, 14

Debagoieneko albiste guztiak albistegietan
19:45
Deiane Arrietak eta Julen Iriondok aurkezten dituzten albistegietan ibarreko albiste guztiak jorratzen dituzte egunero.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musika saioa.
14:30 M1.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:00 Teknopolis.
15:30 M1.
15:35 Lazkao txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Behazulo.
16:15 Klipak.
16:30 M1.
16:45 Albiste aurrerapena.
17:00 Berbaire.
17:30 Zera dio eta Motzean.
17:45 Gaurkoak.
17:47 16 mm.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albiste aurrerapena.
19:00 Klipak.
19:15 Didjeridu.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albisteak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Berriak.
22:15 16 mm: Iñigo Muguruzaren filma.
22:45 Albisteak.
23:15 Erreportajea.
23:45 Berriak.
00:15 Amaiera

4
zenbaki DOAN

Jaso doan *Asteleheneko Goienkaria* lau astez.
Gustukoa baduzu *Asteleheneko Goienkaria* jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta.

Eskaintzaz baliatzeko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**

GIPUZKOAK
AIREBERRITZEKO PREMIA DU.
GU AIRE FRESKOAREKIN
GATOZ GOIZERO.

Egunkari plurala, irekia, integratzailea eta dinamikoa. Hemen bertan idatzia.

Azaroaren 24tik plazan.

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUAZTENA, 2005eko abenduaren 7a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Irene Zenitagoia/ Motorzalea

Noiztik zara motorzalea? Uberakoa naiz eta motorrean joaten nintzen institutura, Cady baten. Gasolina usaina gustatu zitzaidan orduan eta motor artean jarraitzen dut oraindik.

Zenbat motor izan dituzu harrezkero?

Lau guztira.

Nolakoa duzu orain?

Vespa zahar bat dut oraindik gordeta, matrikulazenbakian letrarik ez zegoen garaikoa. Erabiltzen dudana, ordea, KTM Enduro motorra da, bi aldikoa.

Non ibiltzen zara motor horrekin?

Inguruko mendietan eta pistetan. Harora (Errioxa) ere sarri joaten gara. Motorrean ibiltzeko zirkuitu bat dute han. Jende asko joaten da hara, domeketan batez ere, eta Debagoieneko asko elkartzen gara sarri.

Nolakoa da Haroko zirkuitu hori?

Gertatzen dena da hemen inguruan ez dagoela pistarik, zirkuiturik, ez gure ibarrean ezta Gipuzkoan ere. Badakit zale batzuk ibili direla Bergaran zirkuitu bat egitekotan, baina ez dute baimenik lortu.

Haroko zirkuitua oso ondo dago. Kantabriako neska bat askotan joaten da eta Orioko beste neska gazte bat ere hantxe entrenatzen da; Europako Txapelketara doa, gainera, neskatila hori.

Norekin joaten zara zu Harora?

Etxekoekin, senarrarekin eta bi seme-alabekin. Denok gara motorzaleak. Alabak, Maddik, 5 urte ditu eta oraindik bizikleta dominatzen ikasi behar du, baina semea ere ibiltzen da motorrean. 8 urte ditu Jokinek, eta hark ere ematen dizkio bueltak Haroko zirkuituari.

Motor erakustaldietara joaten zarete?

Bai, Bilbon izan ginen duela aste batzuk.

Garestia da motorzalea izatea?

Bakoitzak dituen zaletasunetan gastatzen du dirua, eta guk, motorretan. Ondo ibiltzen ikasteko ordu asko sartu behar dira zirkuituan, trukuak horrelaxe ikasten direlako. Inguruan ez dugu horrelako pistarik, eta kanpora joan behar dugu. Komeni izaten da ere motor ona edukitzea. Bestelakoan, gure artean oso harreman ona dugu eta elkarri uzten dizkiogu zulatuak konpontzeko espraiak eta gainerako materiala.

Ze arropa janzten duzu motorrean ibiltzeko?

Jantziaz gain, gorputza, ukalondoak, belaunak eta zango-bizkarrak babestekoak, eskularruak eta kaskoa.

Motorrak beste gustatzen zaizkizu loreak ere, ezta?

Gure amona zen lorezalea. Beti izan dugu lore mordoa etxean.

Ze lore mota saltzen duzu gehien?

Lore sortak, eta neguan, barrurako landareak.

Arrasate Irratian astero ematen dituzu aholkuak. Nik kanporako landarea gura dut. Zein?

Ziklamena edo azalea.

“Lau motor izan ditut guztira; orain, KTM Enduro motorra daukat, bi aldikoa”

“Haroko zirkuitura joaten gara sarri; lagun asko elkartzen gara han, domeka goizetan, batez ere, eta tartean Debagoieneko asko”

“Amona oso lorezalea zen, eta baita ni ere; lore sortak erosten ditu jendeak gehien”

► *Bergara / 33 urte / Mendiko motorrean ibiltzen da*

PIPERRAUTSA

Esportatzeko

Zentsura hartu du lelo Durangoko azokak aurten, eta aitzakia behintzat jarri du, ahaztua zirudien kontua gogoraraztеko: non eta nola erabiltzen den zentsura, demokrazia itxurako garaiotan. Hartara jarrita, ez da zaila aurkitzea mota ezberdinetako adibideak, bi egunkariren itxiera delarik nabarmenena, ez ordea bakarra.

Berriki irakurri dut nola euskal musika taldeei zaila zaien kanpoan jotzea. Egoera politikoa dela-eta, presio izugarriak jasotzen omen dituzte Madril aldeko antolatzaile eta aretoek, eta beldur direla aitortzen ei dute. Ez da zentsura mafiosoaren adibide txarra.

Bada ordea, zentsuraren molde bihurriagorik, hala nola, nor bere buruari ezartzen dion paralisia, autoestimu eskasaren ondorioz edo konformismoak eraginda. Eta nago honetatik badagoela euskal argitalpenen industrian, esportatzeko orduan. Izan ere, dirulaguntzen epeltasunetik at, euskaltegien eta ikastetxeen ziurtasun barik, euskaldun leialik ezean... uf! Zertan arriskatu?

Nik uste dut euskarazko liburu eta diskoen marmita handian badela esnegain sendoa, bide egin lezakeena beste hizkuntzetan. Eta apar horrek merezi duela azoka berezi bat, kanpora begira pentsatua eta profesionalei zuzendua. Oraingoa bihurtu da Gabonetako denda erraldoia. Bale, hori ere behar da. Baina zergatik ez beste bat udaberrian, esportaziora bideratua, Landakon bertan?

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

PRESTA ZAITEZ HARATEGI HOBERENEKIN GOZATZEKO

Laster Bergara-n

SUPER AMARA • San Lorentzo Poligonoa • Amillaga Kalea 18 • Bergara

SUPER AMARA